

# balkei

2006eko UZTALLA,  
135. ZENB. DOHAINIK



O P O R R E T A R A   G O A Z   -   E T A   Z U E K ?

## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Lure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Karmelo Arroiabe,

Gorka Ormazuri, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Ihintz Linazisoro, Jon Maia,

Eguzki Agirrezabalaga, Natur Taldea,

Ander Hormazuri, Aitor Manterola,

Imanol Garate, Joseba Esnal

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek ez du bere gain**

hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
puntocom .....	7
ze berri? <b>bi zumaiar, bi liburu</b> .....	8
elkarrizketa <b>jon mantzisorren iturriak</b> .....	12
orain hamar urte .....	15
ibilbidea <b>kilimonen barna</b> .....	16
gure zumai zarra <b>joxe elosua zubimendi</b> .....	18
kirolak <b>piraguismoa</b> .....	22
<b>txirrindularitza</b> .....	24
<b>triatloia</b> .....	26
<b>arrauna</b> .....	28
kultura .....	31
<b>karidadeko benta</b> <b>uda musikala</b> <b>divergentes</b> <b>udako zinea</b> .....	31
agenda .....	38



elkarrizketa  
**jon mantzidor**  
“Nahita egin nahi  
nuen gauza handi  
baten itxurako zerbait,  
ponposoa, eta gero  
emaitza hutsala izatea”

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaia Udalak**



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**gizarte ekintza**



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO**  
FORU ALDUNDIA

# Pereira

Asteak ziren sargori kiskali batek herria mendean hartu zuenetik. Pereirak kontatzen du uda hartan bezalako berorik ez duela inoiz ezagutu.

Bulegoko mahaian botata zegoen, esku bustiarekin aurpegiko izerdia lehortu nahian. Begietan sartzen zitzaion izerdia, eta atorraren besoarekin ekin behar izan zion.

–Hau dek lama! –Esan zuen ozen, baina inork ez zion erantzun, arratsalde zera bakarrik egoten baitzen bulegoan–.

Probintziako egunkari baterako eskelak jaso eta nekrologiak idazten zituen Pereirak, baina arratsalde hartan ez zeukan ezer egitekorik. Gogoratu zen aurreko udan horrelako bero sapa bolada batekin milaka agure hil zirela Frantzian, eta laster lana pila-tuko zitzaiola pentsatu zuen.

Kontatzen du ez zuela lanik, eta ezta gogorik ere, eta horregatik erabaki zuela Monteiro Rossiren tabernara irteeta. Kaleko atea ireki zuenean labe handi baten atea irekitzea bezala izan omen ze, eta beti kapelarekin ibiltzen bazen ere, beroagatik edo, bulegoko mahaian ahaztuta utzi zuela arratsalde hartan.

Astiro egin zuen bidea. Suge gorri bat ikusi zuela iruditu zitzaion, bera bezala arrastaka, eta suge gorriaren hozkada egun hartako langarraren antzekoa izan zitekeela pentsatu zuen. Gogoratu zuen telebistan ateratzen zen frantziskotar batek tenporen arabera uztail guztian

trumoi giroa izango zela iragarri zuela. Bera atea zen, frantziskotar horrek ez zuen inoiz asmatu tenporen kontu horrekin, eta telebistan ikusi zuen hartan ez zion kasurik egin. Ez zitzaion beharrezkoa



iruditu behintzat bulegorako bentiladore berri bat erostea, adibidez.

Tenporen kontu hori zer arraio ote zen entenditu ezinik omen zebilen Pereira Monteiroren tabernara iritsi zenean. Lokala ilunpetan zegoen, telebista bakarrik sumatzen zen, eta orduan ikusi zuen Monteiro, aulki batean botata, zurbil, gorputza luze eta burua erorita, ahoa erdi irekita, begiak zuri.

–Hau dek bero lama! –esan zuen ozen Pereirak–.

–Hau bero txarriya, hilda natxiok-esan zuen Monteirok burua astinduaz baina gorputza mugitu gabe.

–Jariyak limonada bat... Zenbat falta dek etapa bukatzeko?

–60 kilometro- erantzun zion Monteirok aulkitik barrara altxa ezinik.

–Zein tokatu zaizkik porran?

–Etzekat zeinik, Mayo eta Beloki.

–Neria ukerro dek... Haimar Zubeldia eta Gonzalez de Galdeano-

–Destinu petrala.

Frantzian euria ari zuen behintzat.



Antxoka Agirre



**MENDI - ONDO C.B.**

ELEKTRIZITEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

## EZkontza



xa 2

Jadanik posible da. Neskak neskekin ezkon daitezke, mutilak mutilekin ezteiak ospa ditzakete eta, nola ez, gizon-emakumeak ere gai dira neska-mutilekin matrimonioa osatzeko. Ezkontzak dakarren lotura zibila norekioa izango den aske aukeratzeko gai gara guzti-guztiok. Emandako aurrerapausoa izugarria

izan da, baina jendarte honek baditu oraindik borroka batzuk irabazteko. Homosexualen arteko ezkontzak arautzeko onartu duten lege berri honekin, berriz ere, aukeratzeko askatasuna bikotearen mugetara moldatu dute, eta bi baino pertsona gehiago izan ditzaketen harreman egonkorak bazter utzi dituzte. Ez direla ohikoak? Normaletik fuerakoak direla? Aquilino Polainok ere horixe bera dio homosexualez, patologia dela eta memelokeria hori guztia. Familia eredu berriei atea ireki behar badiegu, zertarako mugak jartzen hasi? Sortzen den

familiaren ardatza bikotea, hirukotea, laukotea edo otxotea den kideek beraiek erabaki beharko dute, ez legeek. Aukera bat bestea bezain zilegi da eta aukera guztien eskubideak bermatzeko tresna juridikoak jarri behar dira paper gainean eta martxan. Paperetako mugak kenduta ere, geure burukoak uxatzen nahiko lan izango dugu eta. Beraz, askatasuna bai, baina bikotera mugatua.

Askatasunaren ondoren, berdintasunaren kontzeptua daukagu. Legearen aurrean guztiok berdinak omen gara orain. Hori bai, ezkonduz gero. Zergatik ematen zaizkie oporrak ezkontzen direnei? Alegia, pertsona batek ezkontzea erabakitzen du eta lan akordioak oporrak eskaintzen dizkio egun horietan nahi duena egin dezan. Ezkontzen ez den batek ez al dauka opor berezi horietaz gozatzeko eskubiderik? Zergatik, ez ezkontzea erabaki duelako? Ez duelako inor bilatu ezkontzeko? Gauzak argi, ezkontzea erabaki pertsonal eta pribatu bat da, beraz ez dago zertan opor berezirik eman ezkontzearen ekintza hutsagatik soilik, ezkontzen ez direnekiko bazterketa argia egiten baita. Egin beharko litzatekeena zera da, urteroko oporrez gain, norberak egoki deritzon opor berezi eta bakar horiek hartzeko eskubidea lortu. Batzuek eztei bidaiarako aprobetxatuko dute; besteek, sudur puntan jartzen zaiena egiteko. Berdintasuna hori da. Eta hori ere posible da.

mxk

dani



# ZUMAIAKO GKN-DRIVELINEKO ENPRESA-BATZORDEAREN PRENTSA-OHARRA

Zumaiako GKN-Drivelineko enpresa-batzordea

Zumaiako GKN-Drive-lineko langile guzti-guztiok bi eguneko greba egin genuen ekainaren 27an eta 28an. Gainera, uztailaren 4an eta 5ean ere greba egiteko deia egin dugu.

Funtsean, gure duintasuna ari gara defendatzen. GKNk duela urte asko lortu genituen eskubideak kendu nahi dizkigu kolpe batez; hori dela-eta, ez dugu kalera ateratzea beste irtenbiderik.

Multinazionalak 4 urteko indarraldia izango lukeen hitzarmen bat egin nahi du gurekin. Hitzarmen hori onartuz gero, gaur egun enpresa honetan lan egiten duten 370 lagunetatik 100ek lana galduko lukete; urtean 40na ordu gehiago sartu beharko genituzke; baja hartuz gero, ez genuke estaldura osorik izango; soldatak bere horretan mantenduko lirarteke 2005ean eta 2006an (500 \_ finkagaitzeko plusa eskaini digute urte horietako bakoitzerako) eta



2007an eta 2008an IKPa bezainbeste handituko lizkigukete soldatak; kontraturik egin behar izanez gero, ez lukete emakumeen aldeko diskriminazio positiborik onartuko (egun, 17 emakume soilik ditugu gure enpresan)... Multinazionalak gero eta etekin handiagoa lortzea da helburua, berdin du nola.

Enpresako zuzendariak ez dute inolako ahalegin seriorik egin gatazka konpontzeko hitzarmenik lortzeko. Funtsean, hasieran aurkeztu zuen proposamen berari heltzen diote. Zumaiako GKN-Drivelineko

enpresa-batzordeak, berriz, modu guztieta-ara adierazi du prest dagoela negoziatzeko, baita zer helburu lortu nahi dugun ere: funtsean, lehen esan bezala duela urte asko lortu genituen eskubideei eta gizarte-hobekuntzei eustea.

Neoliberalismoa izeneko ordena berria mundu osoko langileoi

eraso egiten ari da, eta eraso horren baitan dago GKN erakusten ari den nagusikeria ere. Multinazional handiek herri xeheari zer okerkeria eta espolioazio egin nahi dizkiguten ikusirik, irtenbide bakarra dago: mobilizatzea, koordinatzea, salatzea eta elkartasuna adieraztea. Gure ustez, bizi-kalitatea etengabe hobetzea da aurrerapena; ez, ordea, botere ekonomikoaren zatirik handiena bere eskuetan duen kezkarik gabeko giza talde baten bizi-kalitatea hobetzea, mundu osoko biztanleena baizik.

Zumaiako, 2005eko uztailaren lehen

ILEAPAINDEGIA  
FRUITZ

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS  
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarkeoak

E. Gurrubaxaga plaza

943 86 19 16

# iritzirik ez?

**M**ugimendu gutxi izan da ekainean Baleikeren web-gunean. Polemika gutxi eta iritziak oraindik gutxiago. Uda giroa nagusitzen hasi al da? Eta ez zen ez etzabaida falta. Ez kalean behintzat. Hor dugu Divergentes ekimenaren barne Saioa Olmo artistak jarritako izengoitien panela. Batzuentzako iraingarria zena, besteentzako herriko ezizenen mapa polita zen. Udalak ez zuen dudarik izan eta panela tapatzeko agindua luzatu zuen. Webgunean udalaren jarrerari buruzko inkesta jarri dugu. Emaitzak hor alboan dituzue.

## INKESTA



## IRITZI BATZUK

### Herrirako sarrera mugatua

HORRI: Web: NOIZ: 2005/06/27 - 14:09 (GASA) Irigintza

Asteburu honetan esanguratsua iruditu zaidan zerbaitek ikusi det: txaperoak, hemira zartu nahian zebiltzan autoak kontrolatzen aritu dira.

Herrikoak zirenei pasatzen uzten zieten, eta herrikoak ez ziren autoak kanpora bidaltzen zibuzten (kirol portuan eta estazioan jarritako aparkalekulara perbatzen det).

Idela ez da txarra, herri barruko trafikoa kontrolatzeko balio dezakeelakoan. Baina, idela bera Erribera kalera zabaltzeko proposatuko nuke. Zergatik ez kontrolatu Erriberako "karga/deskarga" fatatus, eta kafea hartzen, ogi bila, bankura... doazenei autoz sartzen ez utzi? Horrela ginezkoek ere Erriberan ibiltzea izango genuke goizetan.

ERANTZUNAK (3) Erantzun

### Herrirako sarrera mugatua

kalka: 2005/06/27 - 06:04 PM

Ba nik ez dut batere garbi idela ona eta den. Hasteko, auto ilarak eragin ditzake. Hemira zartzen doan auto bakoitza geldiarazi eta identifikatu behar bada... Gero, zeren utzi behar zaito pasatzen? Zubi bikoitk bamura bizi denari bakarrak, heritar gurtoi (baña poligonotik kalera joateko kotxea behar dutenei...), heritik kanpo bizi diren zumaiari ez, baina uda hemian pasatzen duten eibartari bai, lan kontuengatik hemian zartu behar dutenei bai edo ez?, familiarak bisitatzen datozenei?... eta horrela jarri dezakegu, etzabaidan, auto ilarak hondartatik bueltan datozen autoekin bat egin arte... Ez da sistema garbia, asteburu honetan bertan, hainbat zumaiari ez baitiete zartzen utzi. Ortalariren bat ere kezatu da, emeserbetuta zeuden pare bat mahai hutarik gelditu zaizkiolako....

Zentzurik ba al du ordaindu beharreko aparkalekua herri gunetik kanpo jarzea, eta herri gunean aparkalea beriz doakoa izatea? Zuek ez dakit, baina ni, kanpotara banintz, herri gunera zartzen zaistuko nintzateke lehenik...

Zerbaitek proposatzen, hona nik zer agingo nukeen: zubitik bamura aparkatu nahi duenak, ordaindu dezala. Zergatik Zumaiari ordaintzen ditugunok, debalde (hori zurtatzen duen bertal bat jarri beharko litzateke autoan, hainbat lekutan egiten duten bezala). Eta herri gunetik kanpo prestatu diren aparkalekuak, doan. Horrela, akaso, lortuko litzateke zerbaitek.

dekorazioa

# ALBERDI

696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



**TXINGURRI**

Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAILA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ  
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
...mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirol zelaien mantenimendua

Txostenak ...

aholkularitza teknikoak,

Balazioak



Arrain eta  
mariskoak

Barazkiak eta  
aurrez prestatutako  
jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309

# Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

# GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

# Zumaia Hotela

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

# Sei ipuin eta aitortza bat

*Berrikuntzekin dator euskal literaturaren mundua.*

*Herriko idazleei dagokienez, behintzat, hala da, uda atari honetan liburu bana argitaratu baitituzte Imanol Azkuek eta Abelin Linazisorok. Imanolek 'Egunerokoa ez dena'*

*izeneko ipuin bilduma plazaratu du; Abelinek, berriz, bere hirugarren eleberria, 'Aitortza' izenekoa. 'Codigo Da Vinci' eta halakoak alde batera utzita, badugu zer irakuria hilabete bero hauetan.*

JUAN LUIS ROMATET

'Eguneroko ez dena' Imanol Azkuek argitaratzen duen bigarren liburua da. Orain bi urte 'Gaur egun handia da' izeneko lana kaleratu zuen Erein argitaletxearen esku-tik. Lan horrek XXI. Lizardi Saria irabazi zuen, eta kontakizuna nahikoa xumea zen: literatur lehiaketa batean aitak saria irabazi zuen eta horren gaineko semearen gogoetak jartzen zituen paperean.

Bigarren liburu hau ere Ereinen bitartez argitaratu du eta 1997 eta 2000 bitartean idatzitako ipuinen bilduma da. Sei ipuin biltzen dira bertan, denak ere hainbat lehiaketatan irabazleak, eta izenburuak dioen bezala, egunerokoak ez diren istorioak jasotzen dituztenak: "Bi eratako ipuinak daude: alde batetik, gai nagusizat bikote-harremanak dituztenak. Harreman horiek nola okertzen diren erakusten dute hiru edo lau ipuin horiek. Beste pare bat ipuin gertakizun historikoen inguruan taxututakoak dira, 36ko Gerraren eta itsasontzi baten hondakinen inguruan". Jorratutako gai guztien artean unibertso berezi bat erakusten da.

Gaiez aparte, sei ipuinek lotura nabarmen bat dute: guztiak literatur lehiaketetarako idatziak izatea. Hitza egunkarirako egindako elkarrizketa batean aipatzen zenez, "lehiaketak akuiluak dira, idaztera bultzatzen naute, epe jakin baterako eta neurri jakin baterako bukatu beharra beti motibazio handia izan da".



Nikol  Enea


**TABERNA**

Amaiako plaza

ad

**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85



Ipuinak argitaratzeko asmo berezirik ez duela izan aitortu du Imanolek: "Ipuinak hor neuzkan aspalditik, eta pilatzen joan dira pixkanaka. Zarauzko Lizardi saria irabazi nuenean argitaletzeko atea ireki zitzaidan, ordea. Ipuinak hartu, batzuk aukeratu, horiei ere galbahea pasatu eta azkenean sei geratu zitzaizkidan".

Liburua prestatzen zebilela "denbora alferrik ez dela pasatzen" konturatu da. «Neure burua ezagutzen dut ipuinotan, baina gaur egun ez nuke berdin jokatu zenbait alderditan, edo idazkera aldatu egingo nuke neurri batean.

bestek beste, Abelinek liburu honetan jorratzen dituen gaiak. Gerra garaian eta ondorengo urteetan emakume abertzaleek egindako lanari ere omenaldia egin nahi izan die idazleak nobela honetan.

1975. urtean, Francoren azken egunetan, kostaldeko herri batean, Itsasgainen kokatzen da 'Aitortza'. Xixili, 1936ko gerrara senarra joan zitzaion emakume bat da liburuaren protagonista. Emakume honek, bere zahartzaroan, gerra honetan eta ondorengo urteetan gertatutakoak kontatuko dizkio belaunaldi berri bateko gazte bati. Xixiliren bitartez frankisten sarrera, abertzaleen ihesa eta gerra garaiko beste zenbait istorio kontatzen dira.

Zumaia eta inguruko herrietan gertatutako ekintzak jasotzen ditu Abelinek bere nobelan. Horietatik asko amaren ahotik entzundakoak direla dio: frankistek herrian egin zituzten ekintzak, hainbat familia jaioterriatik bidaltzea eta abar.

Xixili eta senarraren maitasun istorioak ere bere garrantzia du eleberrian. Abelinek dioenez, "maitasun istorio honen xamurtasuna erabili nahi izan dut, bestela liburu panfletarioa bihurtzeko arriskua zegoen". Maitasuna eta abertzaletasuna dira Abelinek hiru liburuen ardatzak eta elkarlotzen dituztenak. Bere lehen liburuan, 'Axun' izenekoa (1995, Susa), orainaldian hasi eta 1960ko hamarkadara salto egiten du, protagonistaren lehen maitasun istorioa kontatzeko. 'Iraganean galduta'

Ipuinak berriz irakurtzean sorpresak ere izan dira".


Liburuaren izenburuak badu bere arrazoia. "Ipuin bildumetan askotan jartzen zaio ipuinen baten titulua, baina tituluek ez ninduten betetzen, ez zeukatelako liburu laburbiltzeko adinako indarririk. Horregatik, ipuin baten titulutik abiatuta sortu genuen Egunerokoa ez dena. Izenburu horren azpian egunerokoak ez diren hainbat istorio jasotzen dira".

### Memoria historikoa berreskuratzearen beharra

"Memoria historikoa zenbaterainoko garrantzia izan lezakeen erakutsi zidan gure ama zenaren oroimenez". Hala hasten da 'Aitortza', Abelin Linazisororen hirugarren eleberria, Txalaparta argitaletxeak ateratakoa. 36ko gerra, beldurra, ilusioa eta maitasuna dira,







## Aitortza

**Egilea:** Abelin Linazisoro  
**Orrialeak:** 324  
**Argitaletxea:** Txalaparta

liburua (2001, Txalaparta) 1970eko eta 1980ko hamar-kadetan kokatzen da eta ETako ekintzaile baten maitasun istorioa kontatzen du. Hirugarren eleberri honetan, berriz, gudari baten nobiaren historia lan-tzen du.

Liburua Itsasgain izene-ko kostaldeko herri imajinario batean kokatzen bada ere, irakurle askok Zumaia-ko hainbat txoko ezagutuko dituzte orriotan. Deskribapenak eta hizkera ere herri-koak dira. Kanpotarrek, ordea, ez dute burua hautsi beharrik izango, liburuaren atzealdean hiztegi txiki bat aurkituko baitute.

'Aitortza' argitaratuta ikusteko urte asko behar izan dira. Orain 11 urte, gaixo zegoenean, hasi zen Abelin liburua izan zitekeena idazten. Lehen pauso haietan hari edo elementu zentral baten inguruan hainbat istorio eta azpitrama aurkitzen ziren. "Herriko jende askorekin elkarrizketak egin nituen eta haiek guztiak sartu nituen. Ez zen nobela hutsa eta banekien ezin zela zegoen beza-la argitaratu. Zirriborro bat besterik ez zen. Argitaletxe-tik gauzak kentzeko gomendioa eman zidaten, pertso-naia bakarrik hartzea eta hura lantzea. Luze zihoala eta, bitartean beste bi liburuak idatzi nituen".

Memoria historikoa galtzen ari den erreze-loak bul-tzatu du Abelin liburu hau idaztera. "Azken urteetan hainbat galdera egin diet gazteei eta hauek bere herriari eta honen historiari buruz ezer ez dakitela ikusi dut. Horrek harrিতuta utzi nau. Ez dut uste liburu honek memoria historikoa berreskuratzeko balioko duenik, baina nire kezka adierazteko balio duela uste dut".



Abelin Linazisoro eta Kandido Uranga liburuaren aurkezpen ekitaldian.

## H o r t z k l i n i k a

**MOZÈS HIRIART eta SOULIER**  
Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- \* Endodontzia
- \* Inplantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**

**Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278**



**ALBAITARITZZA  
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00  
ostiralak 11:30-19:00  
larunbatak itxita  
**aldez aurretik deitu**

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

## ZOKKETA MUNDIALA!!

Txalapartak argialetxeak emanda Abelin Linazisororen "Aitortza" liburuaren lau ale zokketatuko ditugu gure irakurleen artean. Horretarako galdera hau erantzun beharko duzue:

**Zein da Abelinen lehen liburuaren izenburua?**

Erantzunak lehiaketa@baleike.comera bidali edota Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) abuztuaren 30a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.



## Aurreko hilabeteko irabazleak



- Ainhoa Salegi
- Feli Uria
- Ihintz Linazisoro
- Idoia Zearreta

Imanol Azkueren "Egunerokoa ez dena" liburuaren ale bana irabazi dute. ZORIONAK!!

Parte hartu eta zorte on!!

 **OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Jose M<sup>o</sup> Korta Industriegunea  
A1 - 4. Pabilioia  
tel.: 943 86 50 68  
fax: 943 86 13 45  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

CROISSANTERIA  
  
pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**Marina**  
Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**ZALLA**  
Taberna - Erreteria

\* plater konbinatuak  
\* otartekoak  
\* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

- Arrainak eta haragiak aukeran  
- Eguneko menua  
- Jangela klimatizatua

  
**JATETXEA**

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

 **BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Jon Mantzisor iturriak proiektuaren egilea

# "Rotondetan eta plazetan aurkitzen diren soinu banda bat egiteko asmoa"

*Ekainaren hasieran aurkeztu zuen Jon Mantzisorrek Donostian bere proiektu berria. "Iturriak" da bere izena eta musika herrikoiaz eta sei laburmetraiez osatutako DVD bat elkartzeko. Eraitza salgai dago Zumaian Kabi eta Ihintza tabernetan.*

**JUAN LUIS ROMATET**

Iturri apaingarri baten faltan, San Juan iturriaren parean elkartu gara argazkiak ateratzeko. Ondoren, Itzurungo hondartzako olatuen mugimenduak lagun genituela proiektu honetaz, "Amodio"-z eta Karidadeko Bentaren etorkizunaz hitz egin dugu.

**"Iturriak" da proiektuaren izena. Zergatik? Zer ekartzen dizu burura hitz horrek?**

Beno, esan behar da proiektua iturri publikoen ingurukoa izan dela, apaintzeko bakarrik diren horien; ez edateko

balio dutenena. Birbilgunetan eta plazetan aurkitzen ditugun horiek aitzakiatzat hartu eta soinu banda bat egitea zen hasierako asmoa, iturrien txorroten erritmoarekin sinkronizatuta. Iturri hauen funtzioa, musika eta artearen historiako momentu batzuk izan ditut kontuan.

**Anbizio handiko lana da musika eta bideoak elkartzea. Nola bururatu zitzaizun? Zaila izan al da aurrera eramatea?**

Berez, asmoa fantasmada bat egitea zen. Nahita egin nahi nuen gauza handi baten itxurako zerbait, ponposoa, eta gero eraitza hutsala izatea. Baina fantasmada ondo egiteko, benetan egin behar da, eta horretarako diru asko behar zen. Azkenean gauza umilagoa egin dugu: bideo bilduma bat eta musika CD bat.

**Musika herrikoia eta bideoarteak uztartzen dira Iturriak-en. Nolatan nahasketa hori?**

Proiektuaren abiapuntua beste jende baten lanetan zegoen, lan oso esperimentalak. Baita musika garaikideko egile



# zen diren iturrientzat noa izan dut".

batzuen idatzietan ere. Esperimentala izatea, berez, balore positibo bezala ulertzen zuten. Gero, mundua alda zezaketela ere uste zuten. Gutxi gorabehera Oteizaren garaiko jendea, baina konpositoreak, eta ideietan ere haren antzekoak. Horri buelta eman nahi nion, horregatik aukeratu nuen serie B-ko musika (spaghetti western eta Gelatxo). Klaro, hori arrazoi kontzeptuala da; benetan, musika hori gustatu egiten zaidalako aukeratu nuen. Eta besterik ez dakidalako egiten.

## Taldekide eta lagunak izan dituzu laguntzaile musika egiterakoan. Nola joan da prozesu guztia?

Ondo. Hemendik eskertu behar dut parte hartu duen jende guztia. Hasieratik gogoz hartu zuten eta gero dena oso erraz joan da beraiei esker. Hau izan da gure talde inprobisatua: Inaxio Tolosa, saxoa eta tronpetan; Uhin Loiola, baterian; Juanan Aizpurua, bibrafonoa eta marriban; Egoitz Amilibia, saxo baritonoan; Xabier Arrona, tronpan; eta Larraitz Torres, ahotsean. Esan behar da ez genuela entseatzeko denbora askorik eduki: batzuekin bost entsegu; besteekin, bi; eta, adibidez, Larraitzek entseatu gabe sartu behar izan zuen ahotsa.

"The Pack" eta "Po" taldeetan indie-rock musika jotzen zenuen; "Karidadeko Benta" eta "Iturriak"-en,

"Iturri hauen funtzioa, musika eta artearen historiako momentu batzuk izan ditut kontuan"

musika herrikoa; eta "Amodio" proiektuan, folk eta post-rock musikkak. Nola ulertzen da bilakaera hori?

Ez dakit, gauza desberdinak gustatzen zaizkit.

## "Iturriak"-ek DVD bat ere badu. Zer ikus daiteke hor?

DVD-an sei egilek beren ikuspuntua ematen dute iturrien inguruan: Koldo Almandoz, Isabel de Naveran, Iñaki Imaz, Sepoiti taldea, Iñigo Garcia eta Jose Luis Barredok eta nik. Sei bideo labur dira eta denak oso desberdinak.

## Zenbaterainoko askatasuna izan dute lan egiteko orduan?

Askatasun osoa. Nik gaia eta iraupena bakarrik proposatu nien, 5 eta 10 minutu artekoa. DVD batean jaso daitekeen edozer egin zitekeen: bideoa, animazioa, musika, argazki finkoak...

## Aurrez esan bezala, proiektu handinahia da. Uste al duzu baduela lekurik euskal kulturaren?

Ez dakit, prentsan azaldu da eta erantzun ona izan du. Hala ere, ez dut uste handinahia denik; gaur egun edonork egin dezake DVD bat. Etxean bertan egin daiteke.

## Nola zabaldu duzu "Iturriak"?


Tirada txikia egin dugu eta Bilbo eta Donostian Bilintx, Urretxindorra eta beste denda batzuetan dago salgai. Zumaian Kabi eta Ihintzan jarri dugu.



*Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan*

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409



Emilio Perez  
Elektronika, telefonoa eta instalazio  
elektrikoen zainketa eta konposaketa

ADI

BASADI 2B  
20750 ZUMAIA  
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adiele@euskalnet.net

**"Amodio" talde edo proiektuko partaidea zara. Zer da "Amodio"? Zeinek osatzen duzue?**

"Amodio" Jabi Manterolaren taldea da (Lisabö taldeko kantari ohia). Bruselan grabatu zuen Aurelien Rotoreau musikari frantsesarekin, eta han ezagutu genuen elkar hirurok. Baina Aurelien Bruselan gelditu zen bizitzen eta orain zuzenekoetarako niri deitu dit.

**Orain aste gutxi batzuk Ihintza tabernan kontzertua eskaini zenuten? Luzerako proiektua al da?**

Ez dakit luzerako izango den; bera kantua jotzen hasten da eta nik inprobisatu egiten dut, ez dugu inoiz serio entseatu eta askotan ez dakit ze akorde edo ze kanta jo behar duen ere. Oraingoz Zura taldearen telonero ibili gara (Dut taldeko Xabi Strubel-en talde berria).

**Karidadeko Bentako partaidea ere bazara. Ze asmo dituzue datozen hilabeteetarako?**

Honbre! Italiara goaz! Hori da gure planik inportanteena.

**Disko berria kaleratu behar duzuela ere entzun da. Hasiera batean udarako EP bat izango zela adierazi zenuten. Zertan geratu da asmo hura? Zer nolako diskoa izango da?**

Guk ere ez dakigu zer egingo dugun, baina garbi dago udarako ez dela izango. Dena italiarrez izango zen disko bat ere bagenuen buruan. Azkenean ez dakit zer aterako dugun, baina urtea bukatu aurretik zerbait grabatu nahi dugu.

**Lehen bi diskoetan estilo propio bat antzeman zitekeen. Disko berri hau bide beretik joango al da? Aldaketarik egiteko asmorik ba al duzue?**

Beno, hasierako asmoa eta gero irteten dena normalean oso desberdina izaten da. Baina orain ditugun kantuen zirriborroak ikusita pixka bat erritmikoagoa egin nahiko genuke, funkiagoa. Horrek ez du esan nahi Jon Maia bat-batean James Brown bihurtuko denik.



## Motxean

**Izena:** Jon Mantzisor Uria

**Adina:** 32 urte

**Artista, musikagilea... nola definitzen duzu zuren burua?:** *Artista hitz handiegia da, eta musikagile izateko... nola ez naizen musikatik bizi, ba ez bata eta ez bestea.*

**Liburu bat:** *"La vida de las abejas" Maeterlinck*

**Pelikula bat:** *"La vida de Brian" Monty Python*

**Artelan bat:** *"Fountain" Duchamp*

**Disko bat:** *Mambo sinuendo" Manuel Galvan eta Ry Cooder*

**Zer jartzen zaitu malaletxean?** *Zumaia bezalako herri batean iturri publiko bat ez dagoela ikusteak.*

**Eta umore onean?** *Lorontziak behintzat badaude, eta horrek lasaitzen nau.*

**Eta umore onean? Datozen urteetarako asmoak?** *Koordinadora bat sortu eta firmak biltzen hasi herrian iturri publiko handi bat jar dezaten.*



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



- Elikadura, belamak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

# Arkupe



*Okindegia eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

# Oporrak, oporrak!!



Oraindik ez da San Simon, ezta San Juda, eta uda heldu da. Joan zaizkigu san Juanak, baita San Pedroak eta Baleike oporretara doa. Merezidugu eta, ze demontre!

"Moilako ingeniarietza eskola" zen 1995eko uztaileko erreportajearen izenburua. Ohartuko zineten bezala, moilan edo obrak dauden beste txokoetan agertzen diren jubilatua ziren idatzi hartako protagonistak. "Moilan eta Paolaldean gertatzen diren gauza denen berri izaten dute: obrak nola doazen, itsasora zein irtetzen den eta zein ez, arraunlariak zer moduz dabilzan... dena". Paolean egiten ari ziren obretan aurkitu zuten Baleikekoek koadrila, baita haiek zekizkiten kontu guztiakin harrিতa geratu ere: "Batek ikasten dituenak besteei kontatuz badakite, adibidez, enkargatu famoso hori Beasain ingurukoa dela, eskubialdeko eskabadora duela bi egunetik aberiatuta dagoela, momentu hauetan harginak jo ta su dabiltzala lanean eta abar. Taldeko batek, gainera, Orruatik katalejuekin begira egoten dela aitortu digu, eta horregatik badaki 6 edo 7 direla lanean ari diren harginak". Kauensos, ez tekniko, ez aparejado-

re, ez arkitekto... jubilatua jarri beharko liriteke hirigintzarako lanean.

Gaiaz aldatuz, Frank Delgado trobalari kubatarri egin genion elkarrizketa 14. zenbaki hartan. Sei hilabete luzetan estatu espainiarren emanaldiak eman ondoren, Oxforden izan zen kontzertu bat ematen eta ondoren galdera batzuk erantzun zituen gogotsu. Troba Kubatarra kultura nazionalaren zati bat dela zioen, "repentismoa eta guajira musika izan daitezkeen bezala, euskal kulturaren barruan bertsolariak dauden bezala". Silvio Rodriguez eta Pablo Milanésen lana goraiatu ondoren ("Hauek hain lan borobil eta sendoa egin dute, hain berritzailea, aldi bat markatu dute"), bi musikari hauek beste trobalari askoen lana estali zutela aitortu zuen. Ideiak botere ekonomikoa baino indartsuagoak direla esanaz agurtzen zen.

Hamar urtetan gauzak asko aldatu omen dira. Ez dakigu, ba, hala den; izan ere, bai eskutan duzuen zenbakian, baita 1995eko uda hartakoan ere, Luis Mari Goikoetxearen iritziak jasotzen dira. Babeslerik gabe ekiten zion traineru denboraldi berriari eta arrazoi guztiarekin kezkatuta ageri zen Goiko: "12 urte pasatxo daramatzat eta aspertu baino gehiago nazkatu egiten zara batzuetan. Arrauna asko gustatzen zaigu, ordea, eta inguruan ditugun laguntzaileekin gauzak errazago eramaten dira eta beno, nola edo hala aurrera goaz". Asko aldatu da arraun mundua denbora honetan, baina Goikok hor dirau jo eta ke lanean. Badirudi ilusioa berreskuratu duela.

Musika mundura begiratuta, "Atxantatu" taldea aurkitzen dugu (nahiz eta idatzian Zure Hiltzaile izenez ezagutzen zirela ere jarri). 16-17 urteko gaztetxoak ziren garai hartan Jon, Haize, Eneko, Ibon eta Uhin eta entsegu lokaleko hormak dardarka jartzeko moduko musika jotzen zuten. Hasiberriak ziren garai hartan (hiru kontzertu bestetik ez zituzten eman elkarrizketa egin zenean), baina ilusioz beteta agertzen ziren. Herrian bizi den musika "eztanda"-ren aitzindaritzat jo al dezakegu talde hau?

Beste atal batzuk baziren, baina lekurik gabe geratu garenez, amaitzera goaz. Ondo pasa oporrak (gu ere saiatuko gara) eta irailan ikusiko dugu elkar.



**AITA MARI**  
KAFETEGIA

Julio Beabide, 15 Tel. 943 861295 Zumaia

gabiidun kamiole baskulagema  
gabiak: 15m-4m.

**GARRAIOAK**  
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 537 189 / 655 706 557  
Izaskari, 5-2A (Zumaia) • Aitzpilgoeta, 16-E (Mendiara)

**gofi**  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



Aritzetan kokatuko da Gipuzkoako errauste planta.

# Kilimonen barna

**XABIER ARANGUREN**

Udako edari freskagarri baten izena dirudien honek (agian, norbaiten imajinaziotik sortua) Euskal Herriko bazter bateko bailara sakon baten izena da. Kilimon edo Aran-Erreka Izarraitzeko mendebaldean kokatuta dago. Kilimoneko erraizetan barneratzen zarenean, herensuge edo lamiei buruzko ipuinen zergatiak antzeman daitezke. Eta... zeinek daki oraindik bertan ez ote diren!

Uda sasoiara helduta, asko zorabiatuta dabiltaza oporrrak non pasatuko dituzten ezin erabakian, zein baino exotikoagoa den lekuekin amets. Ba, badaude urrutira joan gabe toki ederrak, gaurko honen antzekoak.

Mendarora joango gara trenean. Herri honetan dene-tik ikusi daiteke: koba neolitikoak, baserriak, industri iraultzako eraikinak eta, azkenik, nortasunik gabeko etxebizitza grisak. Koktel berezia, beraz. Porlana atzean utzita, zibilizaziotik aldentuko gara. Kilimoneko ibarre-

an barneratzeko baserriz baserri doan bidea hartzen da. Lehenengoetarik bat Lasaldeko dorretxe sendoa da, alboan errota duela.

Esaten dute Kilimon erreka bat-batean gelditzen zela, euria egin edo ez. Geroago ur korronea ageri eta bailaratik behera zihoan, eta Lasaldeko errota berriz martxan jartzen zuen. Hori Aita Larramendiren liburuan ere aipatzen da ("Corografía de Guipuzcoa").

Gaur egun ura ateratzen da etengabe Kilimon erre-karen azpialdetik eta bukatu ziren aspaldi hain bereziak ziren intermitentziak.

Aurrera eginez ikusiko dugu Kilimon erre-karen jaiotza, leize zulo batetik, urak tratatzeko eraikinaren ondoran. Ondo ikusteko, pixka bat aurrerago, baratzte batzuen parean, erreka lehorraren altzora jaitsi behar dugu. Izarraitzeko uren zati handi bat kanporatzen da Kilimoneko iturriaren urbegietatik Deba erre-kara (ikus "Izarraitzeko Hidrologia", Leizarpe Espeleologia taldearen liburua).



#### Erreferentziak

Mendaro Garagartza: 0 km.  
 Lasalde baserria: 1 km.  
 Erremerteri baserria: 4,5 km.  
 Lizarrola baserria 5,5 km.

#### Ezaugarriak

Luzera: 5,5 km.  
 Igo beharrekoa: 100 m.  
 Iraupena: 3-4 ordu.  
 Zailtasuna: laua. Kontuz lamina zuloekin.

Oharra: oso egokia haur txikiak dituztenen familientzat, haur kotxe eta guzti egin baitaiteke.

Aipatutako baratzeak atzean utzi eta ezkerrean pinudi baten sastraketan gordetzen da Agarreko koba, itxitura batekin. Lehenengo kilimoitarren etxea izandako honek lekua utzi behar izan dio gaur eguneko nortasunik gabeko txaletei.

Horietako baten aurretik igaro eta zubitik erreka beste aldera pasako gara. Erreka zatika agertzen da. Gehienetan putzu batzuk besterik ez dira, arrain batzuk igerian ibiltzeko adinakoak.

Aurrerago errepidea haitz artean sartzen da pasabide estu batetik. Berrito irekiko da bi baserri dauden parajeen: eskuinean, mendi magalean, Sustaeta; bestea, Erremerteri. Bertako Hilario ezagutzeko parada edukiz gero, gauza xeble asko entzuteko aukera edukiko

dugu. Aran-Erreakaren sakanaren alboetan pendiza handiak dira. Malda bat artadi trinko sendo eta luze batek estaltzen du, pinu batzuk tartekaturik. Beste aldeak erliebe gehiago du eta mendi kasko batzuk zaindari ditu: Kurpitegi, Aitzerre eta Pagandai. Izen xebleak benetan!

Erremerteritik gora beste urbegi bat aurkituko dugu. Gehienetan lehorra dago, baina uholdeetan ur jauzia dirudi.

Txangoa aurrera doa eta karobi bat ikusiko dugu; garai batean alboan Eguskitza baserria omen zegoen.

Ibilbidea Arrazto eta Aitzbeltzeko leizeen begiradapean amaituko dugu, Lizarrola baserrian, eta orain atzera itzultzea besterik ez zaigu geldituko.



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaita plaza, 7  
 tailerra: 943 860914  
 denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI MOTOR

Santixo auzoa, 22  
 tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



## "Santoñan soldauak kanpo kontzentrazixua ein zien eta gu han sei hilabeteen-edo lanian jardun ginien"

ABELIN LINAZISORO

Portetarrak oso familia zabaldua eta estimatua da herri osoan, zaharrenean aldetik Akeliño eta Joxe dira bederatziz senidetik gaur egunean bizirik daudenak. Joxe aukeratu dugu elkarriketarako. Zergatik? Orain hamarhamaika urte Joxe eta biok Donostiatik Zumaiarako trenean aplikatu ginien. Berriketari hasi eta gerra garaiko mila kontu eta pasadizo kontatu zizkidan. Abentura nobela bat idazteko modukoa, hain zuzen. Herriarentzat ere interesgarria izango delakoan, hona orain egindako elkarriketa:

### Umetako kontuez akordatzen al zara?

Oso gutxi. Herriko eskolara juten gitxuan. Don Krispinena eta lehenago Axuntxion Tintuxena. Gutxi harekin. Han pixkat ibili eta geo honea, herriko eskolara. Alondegixaren gainean zeon eskolara.

### Zer moduzkoa zen Don Krispin hori?

Petral xamarra. Hark batzuek begiko zitian eta bestiak begitan hartura. Hiru edo lau hitxuan ikasten zutenak eta bestiak kantuan ein eta aurrera. ¡A cantar! Diarra eiten zian. Eleizako kantuak kantatzera, hi!

### Zu noiz jaio zinen?

1919-an, oain 86 urte zizkat.

### Jolasean-eta ibiliko zineten, ba, zuek ere, ezta?

Umetan geatu ere eiten al ginan, ba?



*"Okoilutik ertentzeko eskailerak zibeztian eta eerki ibiltzen hitxuan bi behixak goitik behera eta behetik gora. Baita astua ere."*

Frontoira asko juten gitxuan. Eta kalietan saltaka gora eta behera, bueno! Kukuka, trenadioska... Ez gitxuan geldik eotekuak. Besteetan etxetik: Aizak hi! Belarra han dakak listo eta hoa! Lanera txintxo-txintxo.

### Soroa al zenuten, ba?

Itxian ganadua. Bi behi. Baatza ere bai.

### San Jose kalean Porteneko etxean jaioko zinen, ezta?

Bai. Okoilutik ertentzeko eskailerak zibeztian eta eerki ibiltzen hitxuan bi behixak goitik behera eta behetik gora. Baita astua ere. Oilo-tokixa ere baginien.

### Behiak zertarako zenituzten, lan egiteko ala...?

Laneako ez. Esnia ateratzeko. Kanpo lana besteek eiten zien. Xaar-Bidenekoak-edo, Miel Txikinekoak-edo. Aplikatzen zanak.

### Orduan, bazenuten soroa kanpoan.

Bai. Luakixetan. Oain Ayra-Durex daon horretan. Eta bestia Rosendo gailgoak zikan etxe txikixen aldamenean. (Orain Lagun-Artea) Danetik eiten ginien: Artua, aza, baba, patata... Danetik. Baina guria ez huan, e? Portetarrak errentan ginien hartuta.

### Mutil koxkorretan, orduan, lan asko egindakoa izango zara, ezta?

Ein beharko! Aitta lanera juten huan eta guk etxeko lanak ein behar.

### Zer lan egiten zuen, ba, zuen aittak?

Argiña huan. Lana danetik. Paol bideko obrak, barra berrixa eiten-eta. Diputazixoko langilea huan. Han enpliatzen huan. Garai hartan Alberdi huan moilako enkargatua eta gure

*“Zumaiko galtzarria ere gure aittak jartzen zian. Moztu, moldatu, puskatutakoa kendu, berrixa jarri...”*



aitta haren langilea. Lana zeonean deitzen zioan: Hi Joxe, han ein behar-ko dek, honela eta honela. Eta primeran. Zumaiko galtzarria ere gure aittak jartzen zian. Moztu, moldatu, puskatutakoa kendu, berrixa jarri... Aittak arreglatu bai, baina harri zaharra nik atera behar. Nik harrixa preparatu, borraz di-da kuadratu pixkat eta gero beak ondo-ondo behar zen neurrira jarri.

**Zenbat urterekin hasi zinen aittari laguntzen?**

Ba, hamabost urtekin. Lehenorifean (paol bidean) ibili nitxuan lanean, barkuak eiten. Aldamenean Xegundo Kerejetak tailerra zian. Nik Kopeta Haundi-kin eta Kartoiakin-eta eiten nian lana. Txapezko barkuak eiten. Aldamenean Egurrezko barkuak eiten zitien. Aperribaienekoak. Julian Arra-

paxa huan enkargatua. Balantziagane-ko astilleroa, Zubi Haundiko aldame-nea, Potxotxok ein zian.

**Eta Xegundo Kerejetak zer egiten zuen, ba?**

Hark. Muebleak.

**Orduan, lehen Paol Bidean bi ontziola zeuden. Bat txapezko barkuak eta bestea egurrezko barkuak eiteko, ezta?**

Bai. Aperribaiak arrastako barku txiki-xak eiten zitian, bajurako barkuak. Gero langile batzuek handik Beduara jun hitxuan. Manuel Proez, Kabballo eta hauek.

**Zubi Haundixaren ondoan ez al zegoen lehen beste ontziola bat Zakariasenekoak deitzen geniona?**

Bai. Hamen Olasagastitarrak eiten zien lana. Bi zibeztian, bai. Bat Zakariasena eta bestia Balentziaganekoa.

**Zu itsasoan ere ibili zinen lanean, ezta?**

Bai, baina itsasoan gerora hasi nitxuan. Gerra akabatu eta gerora. Pordillosekini hasi nitxuan. Lehen aitta zana ibiltzen

huan. Gerratik etorri eta lanean tailleretan baino gehixo irabazten huan eta Pordillosen aittari esan nitxuan: Zu segi zure martxan eta ni jungo nax itsasora zure partez. Pordillosek ere lanak eiteko-eta nahixo zian gaztea. Sasoikoa. Beaxekin segi nian azken arte.

**Gerra piztu zenean, orduan, zuk hamazazpi urte zenituen. Akordatzen al zara hemen gertatu zen zerbaitez?**

Hamen? Lanik gabe-eta, jendia bialdu-eta, ihes ein-eta... Gerra aurretik, 34-anedo, lana oso gutxi zeoan, diputadua Arratibel huan eta honek lana ekarri zian herrira, bideak irekitzen-eta. Arruako bidian, Larrondo parian, oain gasolinera daon horretan, bidea guk ireki ginien. Kanalean. Hura dinamitaz eta pikatxoiaz zeok irekita. Lehen bide estu-estua zeoan Larrondon ezkerretik eta eskubira juten zana, ba, bide berri-xa guk ireki ginien.

**Baina, garai hartan zuk ontzigintza ez al zenuen lan egiten, ba?**

Bai, baina errepublika garaixan denboraldi batean herrixa lanik gabe geratu huan. Esan ez diat, ba? Herri erdixa bai lanik gabe. Orduan bilatu zian Arratibelek lana gureztat. Zumaiar morduia ibili gitxuan. Dinamitaz eta pikatxoiaz dana puskatu, eskonbrua kamioietan kargatu eta Txikierdiko errebuelta eta hori dana errixuari kendu eta bete lana ere ein ginien. Lan hori ein zanian, beste kuadrila haundi bat Arrua Gora jun eta Ira-etako bidia ein zien mendixa ebakita. Oain nola dago zubixa? Ba, azpi hori dana. Orduan ez zeoan ez biderik eta ez ezer. Mendi-bidea. Orduantxe hasi itxuan automobilak azaltzen.

**Gerra piztu zenean, zu sindikaturen batekoa edo zerbaitez ba al zinen?**

Batera eta bestera ibiltzen gitxuan, baina ez nitxuan inongoa. Gerra etorri

zanean, ihes ein ginien. Frankistak Hondarrabixa, Irun eta Donostixa hartu zitien eta guk ospa. Barkua hartu eta Santoñaino jun gitxuan. Han Santoñan soldauak kanpo kontzentrazixua ein zien eta gu han sei hilabeteen-edo lanian jardun ginien. Gero, gure anaixa zana Gipuzkoa gerrako barkuan enrolatu huan, Euskal Gobernuarena, eta gu handik Bilbo ingurura "Cinturón de Hierro" famosua eitera jun gitxuan. Alper alperrikako lana izan huan, abioiak dana puskatzen zien-eta. Bilbo hartu zutenian, gu poliki-poliki Asturias aldera jun gitxuan. Lagun bat zumaiarra nian. Joxemai Xamorro. Ardantzakua, mutilizaharra. Bilbo erori zanean alkarrekin tokatu eta harekin ein nian bidia. Frankon soldaduei ihesika jun gitxuan. Defentsarako trintxeraren eiten-eta hasten gitxuan, baina ez zian astirik ematen. Hala, hay que ir al monte ha hacer trincheras!, agintzen zien, baina hurrengo goizerako dana laga, eta, andadíos!, ihesika alde ein behar. Galduta.

### Zenbat denbora eman zenuten Cinturón de Hierro hori egiten?

Nik? Hiru hilabete-edo. Haixek eta bonbardeoak hasi zian arte. Bonben kontra ezin ezer ein. Bilbo dana galdu huan. Gu zubitik pasa gitxuan. Puente de Hierrotik pasa ginala goguan zikat. Handik Santander aldera. Gero Picos de Europa. Handik hobeto ibiliko ginala eta engainatuta igo gitxuan goraino. Halare, ez gitxuan hain gaizki ibili. Ahardi zaharra hartu, kutxilua, zast!, sartu eta jatera! Ondo. Ahuntza eta animalixa bazeoan han! Bueno! Eta guk armak. Hil behar ez zanari ere bota. Badakik. Gosia galanta. Gero, Gijona jatxi gitxuan eta hantxe harrapatu ginuzten. Kaka. Euskaldunak lauedo bagitxuan. Bat hernaniarra. Eta Joxemai Xamorro eta bixok. Hura nian jefia nik. Gizon on askoa.



*“Iraetarako bidia ein  
zien mendixa ebakita.  
Orduan ez zean ez  
biderik eta ez ezer.  
Mendi-bidea.  
Orduantxe hasi  
hitxuan automobilak  
azaltzen.”*

### Gijonen harrapatu eta non eduki zintuzten?

Herriko kartzelan. Azpeitikoa bezalako kartzela huan. Probintziala. Orduan esan zien: Todos los que entren a la mili que se apunten para ir a casa. Ni kintetakua nitxuan, presentatu eta Santoñara ekarri niñuen. Santoñan lista zien eta izenak deitzen hasi hitxuan. Elosua apellidua letu zute-

nian, aparte jarri niñuen. Hoge bat edo izango gitxuan apartatutakoak. Fitxatutakoak. Gure anaixa Akeliño nintzalakoan-edo, aparte. Badakik Akeliñok fitxa txarra zian hauentzat. Hura harrapatu bazuen jo ta bertan fusilatuko zien. Horregatik ein zian ihes. Hamen ere kartzelan sartu eta hurrengo goizean izenez deitu eta kapitan baten aurrera eraman niñuen. Txiki-txikixa huan. Bizarrrik gabe. Mutil kozkorra ematen zian. Galdetu zian: ¿Tú has sido voluntario? Si. Voluntario para el hambre. Por el hambre he tenido que ir a la guerra, esan nitxuan, bestela gogorrako hartzen zian, ba. ¿Donde has estado?, hark. Pues, con los milicianos haciendo trincheras, nik. Ah, bueno. ¿Y a tí como te han mandado aquí si tú...? ¿En la guerra que hiciste en Zumaia?, hark. Yo? Nada. ¿Que iba ha hacer? ¿Hacías guardia o así? Yo? Nada. Yo era un chaval y andaba de un lado para otro y... nada de eso. Bueno, vete de aquí, hark. Sei hilabeteen egon nitxuan Santoñan eta handik Deustura kanpo kontzentrazixora eraman niñuen. Eskola haundi-haundi bat huan patixo eta guzti. Han "Prisionero-Trabajador" bezela nitxuan eta egunero langileak eskatzen zitien. Ofizixo batekuak eta bestekuak. Honela, laugarren edo bosgarren egunean: Nik ere jun behar diat, ba! Jun nauk eta enkargatua zein izango eta gure arreba Manuelaren osaba! Estebanen aittaren anaixa. Nik hura ondo ezagutzen nian. Jatxi nauk eskolatik patixora. Han frontoia izandakoa zean, dana puskatuta. Beitu diat eta... Kauen zotz! Nik hori ezagutzen diat! Harena natxiak. Jun nauk eta: Kaixo Paulo! Hamen nabil, ba, ni zeozarren nahixan. Joino!, hark, Nungua haix, ba, hi? Ni? Manuelaren anaixa. Eta hark: Lanean ibilia al haix? Hi oraindik mutil kozkorra haix-eta. Hik zer lan

eingo huan, ba? Ni? Kartoiakin ibili nintzan errematiak-eta berotzen grifian. Joino! Hark. Ekarri erropak edo ezer zer baldin badaukak eta bajatu hadi hor behera. Erropak? Nik zer eukiko nian, ba? Ezer ez. Hartu eta atera eramaniñun. Atean zein eongo eta Iñaxio Peaso eta Itturriko Kaxpar gure bila etorrira! Joe! Hau dek pareja hau! Ni gustora. Goazen, haixek, han ondo jaten die. Ondo zaudek. Oain, preso eon behar. Hoixe txarra. Baina toki eerra dek hura. Zumaiarrak zibek han. Sanbuxoneko Asentxio, Olasagasti, Leonardo, Iñaxio Xagua... Navalean prisionero zibeztitan danak. Hi! -esan zien- Baina kontuz, e! Hitzekin tientoan ibili, bestela han etortzen dittuk frankista kabroi hoixek. Danok elkarrekin eon gitxuan. Danok zumaiarrak. Gustora.

### Navalean nor zenuten jef?

Danon jefia guardia zibiletako jenerala huan. Inutila. Exkerreko besoa falta zian. Bastoiakin ibiltzen huan. Zer eingo edo zer esango ondo zaituta gitxibeztitan, baina jaten ere ondo, e! Baba! Joe! Itxian eindakoa bezelakoa! Prisionero beaixek eiten zien. Dana langile-ofiziala huan han. Neu izango nitxuan gazteena. Olasagasti ere neu baino zaharro. Ofiziala hura ere. Asentxio, Olasagasti eta hauek haro-



tzeira juten hitxuan. Soldadu zaindari batekin. Ni, burnira, besteak beste aldera, bakoitza bere ofizixora. Geo, jateko orduan, danok komedore batera. Gabean erretiratu ere, danok leku batera. Ondo. Jaten ondo ematen zien-eta.

### Han zenbat denbora egon zinen?

Gerra akabatu arte. Gerra akabatu zanean: Todos los que estén libres de quintas iros a casa. Allí ya os avisarán si teneis juicio, castigo o lo que sea. Jo! Ixa danak jun hitxuan. Kintak harrapatzen zigunak hogeita hamar-edo izango gitxuan. Han gaudela esan ziguten: Teneis que ir a Miranda de Ebro. Han batailoi osoa ari hitxuan preparatzen. Mirandan, handik bi egunera, danok batailoi osoa bilduta gaudela, trenera juteko esan zien. Aibadio! Nora goaz?, danok galdezka. Bilbaora. Bilbaora?

Bai, Afrikara jun behar diagu barkuan. Segituan zabaldu huan. Aibadio! Oaintxe eerki! Bilbaon bajatu gitxuan, kalez kale danok formatuta jun eta zubixen kontra barkuan sartu giñuzten.

### Zenbat zineten?

Mila lagun. Lehen esan ez diat, ba? Batailoia. Batailoi osoa. Bost konpainia. Joe! Barkua, Castillo Barber, ni arraunean baino mantsogo ibiltzen huan. Joe! Hura barkua! Gero, marinela ere halako modukoak hitxuan. Portugaleko kostan harrapatu ziguk denboraliak. Jo! Hantxe geatu gitxuan, ez aurrera eta ez atzera. Jende dana mariatuta, hi! Marinela ere bai. Hura paraerua hura! Los únicos que estais de pié sois los vascos, kapitainak, los demás no valen para nada. ¡Esto es una vergüenza! Huraxe txarra. Haixen gonbituak eta zikinkeriak garbitu eta apartatu ein behar.

### Eta mila lagun non edo nola sartu zineten? Barku haundixa izango zen, ezta?

Kargakua. 4000 toneladakoa-edo bai. Bodegan bi pixu zitian eta hantxe danok. ¡Todo el que no se ha mareado que se presente inmediatamente!, esan zian kapitainak. Bodegatik atera ein giñuzten. Danok euskaldunak. Kostakoak.

jarraituko du...

*Kapaia*  
Taberna

Erribero Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**SAIOA**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

# 700 piraguista, 50 elkarte eta igoera-jaitsiera bat



HAIZE GALARRAGA

Uztailaren 17an, igandean, izango da Urola Ibaiaren 29. Igoera-Jaitsiera. Aurtengoa gure itsasadarrean inoiz egin den kirol ekitaldirik jendetsuena izango da, zazpiehun piraguistak hartuko baitute parte bertan. Gure herrira hainbeste kirolari etortzearen arrazoia hauxe da: gure karrera kuttuna, Euskadiko Ibaien

Kopaz aparte, Liga Nazionalerako puntuagarria izatea aurtengoan. Horregatik, Estatuko piraguistarik onenak ikusi ahal izango ditugu Zumaian.

Uztailaren 17an, beraz, eguerdiko ordu batak aldera, Urolako urak, inoiz ez bezala, etengabeko pala mugimendua daroaten piraguen azpian ezkutatuko dira. Dimentsio epikoa izango duen abentura honetan, gutxi batzuek bakarrik dastatu ahal izango dute garaipenaren zuku gozoa eta beraiek izango dira egun horretako aukeratuak. Beste batzuek, aldiz, ibilbidea bukatuko dute, ez dira gogoratuak izango, baina Urolaren historian beste lerro bat idatziko dute, eta liburu mardula osatuko dute. Azkenik, garaituak ere egongo dira, Santiagoko hondartzako urek irentsiak, esfortzua- ren gogortasunak ahituak edota

etsaiaren kolpe maltzurrek hondoratuak.

Bidea ez da samurra izango: Santiagoko hondartzako arriskuak igaro ondoren, kirolariek kilometro luze- ek sortutako nekea jasan beharko dute hamabost bat kilometrotan. Lan horretan, zumaiarren oihuen etengabeko laguntza izango dute bidea samurtzeko. Joxe Mari Korta industrialdearen inguruan egongo da zia boga, piraguistek hain itxaropentsu ikusiko dutena, lan erdia eginaren seinalea. Bertara taldean iristen direnek, palakada bat edo beste eman beharko diote ondoan doanari, arerioa kikildu ondoren piragua bat edo besteko abantaila ateratzeko asmoarekin. Azkenean, Arranpla parean egongo da helmuga; bukaerako indarren bat gorde duenak jendetzaren aurren harro- harro bere gaitasuna erakutsiko du;



Bustok gertutik zainduko du Oier.

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erropa garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

**Galdona**  
  
burdindegia

Mendara marinela, 1      Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15      Faxe. 943 861330

English School  
**Harvest**

**Ingeleseko klaseak adin guztietan**  
San Jose, 11 bis      Tel. 943 143334

gainontzekoek, berriz, bukatzearekin konformaturik, esprinta beste urte baterako utziko dute.

Txapela janzteko hautagaien artean, herriko seme Oier gailentzen da. Bere profesionaltasun eta dotoreziaz baliaturik, Manuel Busto arierio eta lagunaren erritmo aldaketa bortitzak jasan beharko ditu txapela irabazi nahi badu; izan ere, biak K-2an bikote bezala munduko txapel-dunak izanik, Zumaian bata bestea- ren aurka lehiatuko dira. Astebate geroago, berriz, Txekiar Errepublikan, Europako Maratoi Txapelketan hartuko dute parte, K-2an elkarrekin.

Oier ez da izango Europako Txapelketan indarrak neurtuko dituen zumaia bakarra. Xabier Osa "Sakoneta"-k helduenen mailan, adre-luek ematen duten indarra erakutsiko du bere kategoriako Europako piraguista onenen aurka.

Kirol ikuskizunaz aparte, Oxford aretoan piraguismori buruzko erakusketa izango da. Bertan, besteak beste, piraguismoaren historia, Itxas-Gainen historia, bideoak, etab... ikusi ahal izango dira. Aurrentzako gaztelu puzgarriak eta piraguan ibiltzeko aukera ere izango dute larunbatean.

Igandean, beraz, ordu batak alde- ra Urola ibaiaren inguruan ikusiko gara piraguista guztiak animatzen. Aupa, Itxas-Gain!

## Jose Antonio Gorostola "Txiki"

### Urola Ibaiaren 29. Igoera-Jaitsieraren antolatzaile nagusia

Txiki, piraguan inoiz ibili ez arren, Urola 2005eko antolatzaile nagusia da. Bera gabe ezin izango litzateke aurtengo festa handia antolatu eta, beraz, berekin hitz egin dugu egin duen lanari buruz.

#### Inoiz piraguan ibili gabe, nolatan sartu zinen Itxas-Gaineko bazterrak nahastera?

Ni Itxas-Gain-eko sozioa nintzen eta piraguistak laguntza eske etorri ziren iazko Urolako irteeran laguntzeko. Momentu horretan lana utzi behar izan nuen eta aukera suertatu zitzaidanez, ba, laguntzen hasi nintzen.

#### Zer laguntza ematen hasi zinen?

Aurrena klubean zer funtzionamendu zegoen ikusi nuen, ze ni inoiz ez naiz piraguan ibili. Giroa gustatu zitzaidan eta pixkanaka laguntzen hasi nintzen, babesle bila, ekipoko arropak lortzen, etab.

#### Nolatan ekarri duzue, ba, Liga Nazionala Zumaia?

Piraguistak zer mundutan mugitzen ziren ikusita, polita iruditu zitzaidan ligako karrera bat egitea. Hasieran, K-4 froga bat nahi genuen ekarri, baina hori Galizian egiten da, eta oso errotuta dagoenez, ez dute handik aldatu nahi. Azkenean Liga Nazionalerako puntuagarria izatea lortu genuen.

#### Nola lortzen da horrelako helburu garrantzitsu bat?

Aurrengo gauza, planteamendu bat egin eta gastuak kalkulatu genituen. Ondoren, Udaleko kirol arduradunei eskaini nien proiektua, gastuak eta onurak azalduz. Lau hilabete geroago baietza



jaso genuen eta Espainiako federazioari eskaera egin genion. Azkenean, urtarrila aldera, federazioko teknikoak hona etorri ondoren, baiezkota eman ziguten eta Urola Liga Nazionalen sartu zuten.

#### Zer lan gehiago egin dituzu Urola dela eta?

Kirol portuan dutxak egin (42 dutxa), helmugako posteak, ziabogako boiak lortu, identifikazio txartelak egin, 100.000 bilertara joan, lanerako boluntarioak lortu, aterki eta kamisetak egin, zozketa antolatu, baimenak lortu Kapitania jeneralean, kirol portuan, etab.

#### Zer balorazio egin dezakezu honi guztiari buruz?

Ilusio handiarekin nago eta pentsatzen dut Zumaia herria eta kanpoko jendea horrelako froga bat ikustera etorriko dela. Eta eskerrak eman nahi dizkiot Zumaia-ko herri guztiari.



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



# bizikleta gaineko anai-arrebak

**Ezagunak ditugu txirrindularitzan Itziarke Aitor eta Unai Osa anaiak. Zumaian, berriz, Osa anai-arrebak ditugu txirrindulariak: Mireia eta Egoitz.**

ITSASO IBARRA

Mireia Osa, 14 urteko gazteak ekainaren 21ean Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Zarautzen. Lesio batetik irten berria zela hartu zuen parte lasterketan. "Ez nuen irten behar, gutxi entrenatuta joan nintzen, baina azkenean irabazi egin nuen". Infan-tilen mailan, errepideko lasterketan jardun du aurtengo denboraldian.

Egoitzek, berriz, 18 urte ditu eta aurtengo afizionatuen mailan lehendabiziko urtea egin du. Ekainaren 8tik 10era bitartean Espainiako txapelketa izan zen Tafallan. Bertan, pistako lasterketa hartu zuen parte eta lehendabiziko hamarren artean geratu zuen. "Aurtengo kategoriaz igo naiz, eta munduko txapeldunordearen aurka aritu behar izan dut". Iazko Espainiako txapelketa abiaturako frogan, brontzezko domina eskuratu zuen, "izan dudana garrantzitsua izan da", azaldu du.

Mireiak bost urte daramatza bizikleta gainean; Egoitzek, berriz, zazpi urte errepidean eta lau pistan. "Familiatik datorkigu afizioa, aita eta osaba txi-



rrindulariak izan ziren. Txikitzen kirolen bat egin behar zela esaten ziguten, aitak probatzen animatu eta azkenean proba egin eta gustatu egin zitzaidan", azaldu du Egoitzek.

Txirrindularitzak kirol gogorren fama du, eta biek daramatzaten entrenamenduak ere ez dira makalak. Egoitz pistan aritzen da eta afizionatuen mailan dagoenez egunero entrenatzen du. "Bi astetik behin

egun bat jai hartzen dugu, karrera ondorengo eguna. Errepiderako, berez, hiruzpalau ordu sartu behar dira, baina nik belodromorako bi ordu sartzen ditut indar gehiago eginenez. Bestetik, belodromoa Donostian dagoenez, hemen errepidean ibiltzen naiz pixka bat eta hara bi egunetan joaten naiz".

Aurtengo denboraldia amaitu dute, eta datorrenari begira dabilta biak.

**Lekin**  
ZUMAIA, S.L.

ENTZUNEKIN ZUMAIA, 20750 ZUMAIA. TEL. 943 53 53 05. WWW.LEKIN.COM

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL +

**ongizan**  
fisioterapia zentroa  
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskalnet.net  
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Mireiak kategoría berria izango du eta kadeteetan arituko da. Eskubaloian ere aritu da, baina orain bizikletan kontzentratuko omen da. "Orain arte astean hiru egunetan entrenatzen nuen, baina datorrenean ordu gehiago sartu beharko ditut". Berak errepidean entrenatu ohi du, eta gehienbat herrian, Zarautzen eta Azpeitia aldean aritzen da. Kadeteetan hasten dira pistan entrenatzen, eta Mireiak hor ere froga egingo duela azaldu du. Egoitzek ere gogor entrenatzeko asmoa du. "Neguan pistako denboraldia hasten denean gimnasio pixka bat egiten dut, baina datorren urteari begira urte osoan joaten hasi beharko dut".

Tourra ikustera joateko gogoia ere badute eta horren inguruan aritu dira. Mireiarentzat Amstrong da faborittoa; Egoitzek, berriz, Ullrich du gustuko, "aurten ere ondo prestatuta joango da eta Mayo ere saiatuko da, nahiz eta suerte asko ez duen".



## Motxean

**Izena:** Egoitz  
**Adina:** 18  
**Afizioa:** txirrindularitza  
**Gustuko kirolaria:** Ullrich  
**Musika taldea:** Berri Txarrak,  
 Linkin Park moduko danak  
**Sp ala St:** San Telmoak,  
 herrikoia eta luzeagoak dira

## Motxean

**Izena:** Mireia  
**Adina:** 14  
**Afizioa:** txirrindularitza  
**Kirolaria:** Joane Somarriba  
**Musika taldea:** Ken 7  
**Sp ala St:** San Telmoak



Basadi Auzategia, 10 behea  
 Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
 ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak**

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



**PEUGEOT**

**INMOBILIARIA**



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 408



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN  
 ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAIA



# triatletak... zuen postuetara!

MAITANE AGIRRE

Jada iritsi zaigu uda eta honekin batera hainbat eta hainbat kirol ekitaldi izango dira: hondartzako futbol txapelketa, piraguen jaialdia, estropadak... Kirol proba horietako bat uztailaren 9an izango da: Zumaiaiko II.Triatloia, hain zuzen ere.

Triatloian jende ugari hartuko duela parte uste dute antolatzaileek, eta horregatik mugatu egin dute partaide-tza (gehienez ere 250 kirolari). Kategoria edo maila desberdinak ezarri dira. Alde batetik, 23 urtetik beherakoak; bestetik, absolutu emakumezkoak eta absolutu gizonezkoak; amaitzeko, beteranoak egongo dira. Kategoria horietan guztietan izango dira sariak. Parte hartzaileak Arbustaingo arrantplatik irtengo dira, eta 1,5 kilometro igerian egin ondoren, bizikletan 45 kilometro bete beharko dituzte errepidean: Zumaia irten eta Zestoarantz abiatuko dira; Azpeitiko Landetan buelta eman eta Meaga igo



ondoren, Getariara jaitsi beharko dute eta handik Zumaia etorri. Amaitzeko, 10 kilometro egin beharko dituzte korrika Zumaian bertan. Triatloia 18:15ean hasiko da. Zumaia Triatloi Taldea izango da probaren antolatzailea. Zumaiaiko kirol elkarteko hainbat kide izango

dira parte hartzaile. Edozein kirolatan prestaketa garrantzitsua bada, zer esanik ez hiru kirol mota batzen dituen triatloian. Hilabeteetan egindako entrenamenduen emaitzak erakusteko asmoz, kirolari ugari izango dira gure artean uztailaren 9an, ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko.



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

## ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
**OPILOKINDEGIA**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24



- \* Material guztietako leihoak:  
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- \* Armairu enpotratuak
- \* Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- \* Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



OIKIA 943 147083

## Jon Ulazia triatleta

# "Buruz oso indartsu egon behar da hainbeste orduko froga bat egiteko"

Zumaiako triatloian parte hartuko duten kirolarien artean, gauzak azken orduan okertzen ez badira, behintzat, Jon Ulazia triatleta zumaiarra izango da. Denboraldi bikainari amaiera emango dio Zumaiako triatloian. Jon duela gutxi Tarragonan izana da Ironman delako frogan parte hartzen. Ironman triatloia berruan sartzen da, baina bete beharreko distantziak eta gogortasuna askoz handiagoak dira. Horregatik, hainbat hilabetetan gogor prestatu behar izan du Zumaiako Triatloio Taldearekin. Horren ondorio edo sari gisa emaitza aipagarria lortu zuen Tarragonako proban.



Ironman bat burutzeko zer nola prestatu behar den eta triatloiar buruzko beste hainbat galdera egin dizkiogu elkarrizketa honetan.

### Zenbat urte daramazu triatloietan parte hartzen?

Jada zortzi urte daramatzat kirol honetan.

### Parte hartzen hasi aurretik gogor prestatu behar izan al dituzu?

Prestaketa nahiko gogorra izan da; nire denbora libreko zati handiena entrenatzen pasa dut. Jaiegunik gabe, ia sei hilabetez. Egunean bi kirol entrenatu behar dira, korrika eta igeriketa edo bizikleta eta igeriketa. Egunean hiru ordutik lau ordutara entrenatzen nintzen. Asteburuetan, berriz, sei ordutik zortzi orduko saioak izaten nituen.

### Nola bururatu zitzaizun Ironman bezalako froga gogor batean parte hartzea?

Uste dut triatleta guztien ametsa dela ironman batean izatea. Nirea, behintzat, bazen. Batzuek pribilegiotzat jotzen dute honelako proba batean parte hartzea, baina ondo prestatuz gero, edonork du parte hartzeko aukera.

### Zertan datza zehazki Ironman froga?

Hasteko 3.800 metro egin behar dira igeriketan. Ondoren, bizi-

kletan 180 kilometro, eta proba maratoi batekin, 42.195 metro korrika eginez, amaitzen da.

### Prestaketa fisikoaz gain, psikologikoa ere behar al da?

Prestaketa fisikoa bezain garrantzitsua da psikologikoa. Buruz oso fuerte egon behar da hainbeste orduko froga batean kirola etengabe egiten egoteko. Inguruan duzun jendearen laguntza morala, lagunena, familiarren, neska lagunarena ezinbestekoa izaten da.

### Triatleta zarenetik, gauza askori egin behar izan al diozu uko?

Froga luzea, ironmana, prestatzerakoan

bai, dedikazio osoa eman behar zaio eta. Gainontzean, denbora librean banatzean dago trukua. Nahi izanez gero gauza guztiak egitera iristen zara. Baina, noski, sakrifikatu beharra dago.

### Zer da zuretzat triatloia, afizio ala eginbeharra?

Biak. Afizioa izatetik eginbeharra izatera pasatzen da.

### Kirol munduan doppinga gero eta zabalduago dago. Zein da zure iritzia gai honi buruz?

Emaitza onak lortzeko eta aurrean ibiltzeko ezinbesteko baliabide bihurtu da drogak hartzea. Norberaren gain dago hartzea edo ez. Baina nik zer esango dizut honi buruz, ez naiz-eta profesionala.

### Helburu zehatzik finkatu al diozu zeure buruari?

Aurtengo denboraldiko helburua maratonia eta Ironmana egitea zen eta biak egin ditut. Gustura nago denboraldi honetan egin dudanarekin.

### Zein asmo dituzu etorkizunera begira?

Zumaiako triatloiarekin amaitzen dut denboraldia. Orain atsedendia dator eta gero gerokoak.

Tarragonara joan ziren lagun guztiei eta Sumofic, Oki eta Zalla tabernari laguntza eta babesa emateagatik eskerrak emanez agurtzen da Jon Ulazia. Uztailaren 10etik aurrera merezitako atsedena izango du.

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
ARozTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

# Denboraldi garrantzitsua aurtengoa arraunlarientzat

**Badira urte batzuk Zumaiako Telmo Deun trainerua TKE Ligan ez dabilela. Arraunlarientzat, klubarentzat eta Zumaiarentzat liga nagusian jokatzea garrantzitsua da: Kantauri itsasoan nagusiekin batera zabilta, ezagunagoa zara,**

**publizitate gehiago duzu, zaleen artean ere ilusioa nabari da... Horren ondorioz, aurtentzako zumaiarrek TKE Ligara igotzeko helburua dute eta momentuz martxa egokian doaz. Ea zortea duten eta hurrengo denboraldian onenekin batera ikusten ditugun.**

## IZASKUN URBIETA

Pozik azaldu zaigu Goiko mutilek egindako denboraldiaurrearekin. 2 aste dira Elantxoben bigarren sailkatu zirela, Orioren atzetik segundo gutxira, eta estropada horretan erakutsitako mailak eta denboraldiaurrean egindako lan onak, mutilengan ilusioa berpiztu du eta daukaten onena erakusteko gogoz daude.

Aurtentzako Aita Mari Arraun Elkarteak 2 traineru osatzea lortu du. Goikok azaldu digunez, "Klubaren helburu nagusia gazte jendea mantentzea zen eta horregatik 2. txalupa lortzeko borroka egin dugu". Kirol mailan, aldiz, "gure helburua TKE Ligara igotzea da bietako traineru batekin. Horretarako egin ditugu fitxaje berriak".

Bi traineruak Federazioaren ligan ari dira. Bata A mailan eta bestea B mailan. Hots, bakoitzak bere estropadak jokatu ditu. Batzuentzat, gainera, denboraldia luzea izango da, batez ere, play off-a jokatu behar badute; izan ere, kanporaketa irailaren bukaeran izaten baita, ziuurrenik Ondarroan eta Portugaleten.

Horregatik Goikok esan digu aurtentzako denboraldia gogorra eta luzea izango dela. Estropada asko jokatu behar dituztela eta edozer ezusteko



gerta daitekeela. Baina, guztietan maila ona ematen saiatuko direla.

Bestalde, Goikok komentatu digu aurtentzako eskaera batzuk egin dizkiotela federazioari, play off-a alda dezan. Lehen, promozioan TKEko azken biek Federazioko lehen bien aurka jokatzeko zuten, eta 4 talde horietatik bi onenak igotzen ziren. Zumaiarren eskaria da Federazioarenean lehena gelditzen dena zuzenean igotzea eta, horren ondorioz, TKEko azkena zuzenean jaistea. Promozioa, beraz, beste bien artean jokatzeko.

Hala ere, Goikok esan digu oso zaila ikusten duela eskaera gauzatzeko.

Arraunlarien artean giro ona dagoela esan digu. Berriak oso ondo

moldatu direla eta barre asko egin eta giro ona jartzen dutela. Gainera, arraunlariak beraiek ere TKEra igotzeko gogotsu omen daude, eta hori abantaila dela Klubarentzat. Hau da, guztiak amorratzen daude aurtentzako mailaz igotzeko eta hori klubaren espirituan eta ilusioan garrantzitsua da.

Halaber, Goikok uste du herriko jendea mugituko dela. "Emaitzak onak direnean, denak egoten dira gustura eta denak dira lagunak".

Guk, hemendik, zortetik handiena opa diegu arraunlari guztiei eta ea iraila bukaeran denok TKE Ligara igotzea ospatzen dugun. Animo, mutilak!!

## BOTOAK DENDAN ERAGINKORRAGOAK DIRA

Xabier Aranguren, Zumaiaiko Natur Taldeko kidea

Orain arte, bozkatzeak bakarrik balio izan digu mapa politikoa aldatzeko tresna bezala. Nondik ateratzen da, beraz, eraginkorragoak direla "erosketa bozkak" hauteskundeetakoak baino?

Oso erraz ulertzen da. Guk produktu bat erostea produktu hori fabrikatze-

aren aldeko boto bat da. Beraz, ez erostean, ez fabrikatzearen aldeko ekimen bihurtzen da.

Ez da zaila ikustea kontsumo ekintza bakoitza boto bat dela, zer mundu mota eraiki nahi dugun lasterketa honen barruan. Gure esku dago erabakitzea zein aterako den garaile.

Gure hausnarketak galdera batzuk planteatu dizkigu:

- Zer nolako kaltea dakarkio ingurumenari produktu bakoitzaren ekoizpenak? Baliabide berriztagarriak erabili al ditu?
- Zein baldintzatan lan egiten dute bere langileek?

- Zer eragin du eskualdeko giza ekonomian?
- Zer kostu energetiko dakar produktu horren garraioak?
- Norena da enpresa? Zein da bere historia?

Beraz, gure esku dago erabakitzea etorkizunerako nahi dugun eredia. Kontsumitzaile bezala, aukera aparta dugu gure indarra aplikatzeko eta zentzuzko kontsumoa bultzatzeko. Halaber, badaukagu ez bozkatzeko aukera (ez erostea), baina horrek zailtasun gehiago ditu eta konpromiso gehiago eskatzen ditu.

Informazio gehiagorako:  
[www.opcions.org](http://www.opcions.org) eta [www.consume-hastamoir.com](http://www.consume-hastamoir.com)



### EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

### BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
 20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
 Tel. 943 14 33 69

# TOKIKO AGENDA 21



## EKINTZA PLANA

Tokiko Agenda 21 Udalerri iraunkorra izateko iristeko burutu behar diren ekintzak jasotzen dituen egitasmoa da.

Ingurumen, ekonomi eta gizarte-politikak bateratzen ditu. Guztien bizi-kalitatea hobetzea du helburu garapen iraunkorraren bidez. Prozesu honetan udaleko sail guztiak implikatzeaz gain, herritarrek parte hartu behar dute.

### ZER DA GARAPEN IRAUNKORRA?

Garapen iraunkorra, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzea arriskuan jarri gabe, oraingo belaunaldien beharrak asetzen dituen garapena da. Gizarte-justizia, ekonomia eta ingurumen orekatua lortzean datza.

### MOMENTU HONETAN NOLA GAUDE ZUMAIAN?

Orain arte, udalerriaren egoera eza gutzeko azterketa bat egin da: Diagnostikoa. Azterketa horretan herriaren sendotasunak eta ahultasunak ikusi dira eta haiek ikusita helburu batzuk proposatu dira.

Beraz orain Zumaiako Ekintza Plana egiteko garaia da beharrak eta lehentasunak aztertuz. Ekintza plana finkatu behar dugu guztion artean. Hortik aurrera, ekintza eta programak garatuko dira, egitasmo guztien jarraipena eta balorazioa eginaz.

### NOLA PARTE HAR DEZAKEGU?

Uztailean zehar Udaletxean mahai teknikoa egingo dira. Bertan, Zumaiako Ekintza Plana eztabaidatuko da, hau da, datoren urteetan herrirako planteatuko diren ekintzak. Plan honek helburu orokor batzuk, helburu zehatz batzuk eta ekintzak jasoko ditu. Mahai teknikoetan teknikariek, politikariek eta zenbait eragilek parte hartzen dute. Irailan eko-unian, berriaz, herritarren partehartze foroa antolatuko da eta herritar guztiak gonbidatuta egongo dira Ekintza Planari ekarpenak egiteko.

INFORMAZIO GEHIAGO:  
Tel.: 943 89 00 45  
[www.urolakosta.org](http://www.urolakosta.org)  
[agenda21@urolakosta.org](mailto:agenda21@urolakosta.org)

# ARGAZKI LEHIAKETA

Oporretara al zoazte? Hemen geratzen al zarete? Ba ez ezazue zuen argazki kamera etxean utzi eta hartu ezazue parte Baleikereren udako argazki lehiaketan.

Argazki digitalak eta eskaneatutako argazkiak onartzen, koloretan eta zuri beltzean.

Argazki onena [www.baleike.com](http://www.baleike.com)-eko boto emaileek erabakiko dute. Irabazlearentzako saria **bi lagunentzako afari eder bat** izango da.

Zuen argazkiak [lehiaketa@baleike.com](mailto:lehiaketa@baleike.com) helbidera bidali abuztuaren 31 baino lehen. Irabazlearen izena urriko Baleiken argitaratuko dugu.

Parte hartu ezazue eta ondo pasa oporretan!!... (ahal duenak)



# Italiatik Zumaiara: Karidadeko Benta zuzenean Mari kalean

JUAN LUIS ROMATET

'Amore, amore' diskoaren arrakastaren aparrean, Karidadeko Benta taldea hainbat kontzertu ari da eskaintzen azken hilabete hauetan. Gure herri txiki honetako mugak puskatuz, Italiaren konkistara abiatu dira zumaiarrak (eta Soralaruekoa, ez dezagun ahaztu Domentxen helikoia). Bertako elkarte batek antolatuta, bizpahiru emanaldi eskainiko dituzte. Gure herrian berriz ikusteko aukera izango dugu laster batean, abuztuaren 15ean kontzertua eskainiko baitute Mari kalean.

Uda hasiera oparoa izan du Karidadeko Bentak. Uztailaren 2an Sopusu herrian Mendebala jaialdian jo ondoren, egun bat geroago, hilaren 3an Maule ondoan Euskal Herria Zuzenean jaialdi erraldoian izan ziren. Taldeko abeslari Jon Maiaren esanetan "pasada bat" izan zen Zuberoan izandako jaialdia. Nahiko ordu txarrean jo behar izan bazuten ere, eguerdiko 12etan, kontzertu arrakastatsua izan zela aitortu du Maiak. "Iparraldean jarraitzaile asko ditugu. Urte honetan dagoene-

ko sei aldiz jo dugu mugaz bestaldean. Jarraitzaileek, gainera, kanta denak buruz dakizkitez. Kristoren martxa egon zen jaialdian".

Atsedenerako denborarik gabe, uztailaren 4an hegazkina hartu eta Italiara abiatu ziren zenbait kontzertu eskaintzera. Erroman, Florentzian eta San Quirico herri txikian izan dute taldearen musika entzuteko aukera. *Associazione Culturale Euskara* da txango honen antolatzailea. Erroman dagoen euskal etxea da elkarte hori. Jonek dioenez, "elkarterkoei asko gustatu zitzaizkien diskoa eta hortik etorri da bira txiki hau". Oraindik guztiz ziurtatu gabe badute ere, baliteke aurrez agindutako kontzertuez gain besteren bat eman ahal izatea.

Ez da, ordea, dena lana izango. Antolatzaileek furgoneta bat utzi diete eta bidaiatuz turismo pixka bat egiteko aukera ere izango dute. San Quirico herrian eman beharreko kontzertua berezia izan da. Orain hiruzpalau urte Zumaiako espedizio bat Toskanako herri honetan izan zen. Hainbat lagun egin zituzten



bertan eta emanaldi hau beraiekin elkartzeko aukera izango da.

Kontzertuen artean kanta berriak prestatzen ari dira taldekideak. Udarako lauzpabost kantuko diskoa ateratzearen proiektua alde batera utzi dute eta Karidadeko Bentaren disko berria prestatzen hasi dira. Jon Maiaren esanetan, "helburua kantak abuztuan prestatzea eta irailean estudiara sartzeta da, baina ez dakigu helduko garen".

Bitartean, Zumaian izango ditugu kontzertu berezi batean. Abuztuaren 15ean izango da emanaldia Mari kalean, orain lau urte debuteko kontzertua eman zuten leku berean. Lehen bi diskoetako kantak entzun ahal izango dira Ama Birjina eguneko gauean.

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

*Maita*  
ileapaindegia

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

# nazioarteko XXI. m usika jaialdia: m usika klasikoaren txanda

**Uda eta eguzkia iritsi dira Zumaiara. Horiekin batera, heldu dira urtero garai honetan ospatzen diren hainbat ekitaldi ere, hala nola, San Pedroak, kirol ekintzak, musika kontzertuak...**

**Azken horren ildoari jarraituz, bada Zumaian urtero ospatzen den eta herrian nahiz herritik kanpo garrantzia hartu duen ekitaldia: Zumaiaiko Nazioarteko Musika Jaialdia.**

## UIRE ALZIBAR

Uda eta eguzkia iritsi dira Zumaiara. Horiekin batera, heldu dira urtero garai honetan ospatzen diren hainbat ekitaldi ere, hala nola, San Pedroak, kirol ekintzak, musika kontzertuak... Azken horren ildoari jarraituz, bada Zumaian urtero ospatzen den eta herrian nahiz herritik kanpo garrantzia hartu duen ekitaldia: Zumaiaiko Nazioarteko Musika Jaialdia.

Lehenengo urtean sona berezia izan zuen, 20. urteurrena zela eta; aurten-goak, ordea, ez du garrantzi txikiagoa izango eta horregatik aurten ere herrian izango dira musikari ezagunak eta haiengandik zertxobait edo asko ikasteko prest egongo diren ikasleak.

Zumaiaiko Udalak antolatutako Nazioarteko XXI. Musika Jaialdi hau abuztuaren lehen egunean hasiko da

eta hainbat egunetan herria musikaz apaindu ondoren, hila-bete bereko hamargarren egunean amaituko da. Aurten, gainera, Musikene deituriko Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia arduratuko da ekitaldiaren zuzendaritza pedagogikoaz eta guztiaren zuzendaritza lanetan Itziar Barredo arituko da. Bestalde, Musikene bertako hainbat irakasle arituko dira mintegiak ematen.

Guztira musika klasikoari lotutako hamar ikastaro izango ditu aurtengo musikaldiak. Horieta-tik, zortzi musika tresnenak izango dira: klarinetea, fagota, flauta, oboea, biolontxelo, biola, pianoa eta biolina; ikastaro bat ganbera musikarena izango da eta azkena, kantu eskola magistrala-



LIBRURUEN DENDA

Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569



Bonaki Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAI

## Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

rena; azken hori aurtengo berrikuntza izango da.

Lehen bederlatzi ikastaroetako lantaldeak hamabi pertsonak osatuko dituzte. Kantu eskola magistralean, aldiz, hamar ikaslek hartu ahal izango dute parte. Pertsona gehiagok emango balute izena, hamabi (edo hamar) ikasle horiek nor izango diren jakiteko hautapen froga batzuk egingo dituzte. Horiek gainditzea lortzen ez dutenek entzule gisa har dezakete ikastaroetan.

Aurrez aipaturiko musika tresnen mintegiak, berriz, musikaldiak iraungo dituen hamar egunetan izango dira. Ez, ordea, kantu eskola magistralorean, abuztuaren 2tik 4ra iraungo baitu. Guztietan irakasle ezagunak izango dira dakitena gainerakoei irakasteko prest. Alor bakoitzean pertsona bat arituko da irakasle lanetan. Horrela, klarinetea irakasteaz José Luis Estellés arduratuko da, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko irakaslea. Irakasle horrek errezitaldiak, ganbera musika, bakarkako kontzertuak nahiz orkestra musika lan-tzen ditu.

Biolontxelo, oboea eta aurtengo berrikuntza den flauta ikastaroez Damián Martínez, Eduardo Martínez eta Magdalena Martínez arduratuko dira, hurrenez hurren. Horiakin batera ibiliko dira Zumaian David Tomás eta David Quiggle, hau da, fagot eta biolarekin arituko direnak. Biak ere Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko (Musikene) irakasleak dira.


Halaber, musika tresnen irakasleetatik, artean garrantzitsuenak pianoa irakatsiko duen Eldar Nebolsin eta Yuri Volguin biolinista izango dira. Izan ere, garrantzitsu edo ospetsuen artean sailka daitezke Espainia zein nazioarte mailan duten izenagatik. Lehenak Espainiako eta nazioarteko orkestra garrantzitsuenetan jo du eta ganbera musikako irakaslea da Madrilgo Goi Mailako Reina Sofia Musika Eskolan. Bigarrena, aldiz, Europa eta Errusian zehar ibili izan da biolin nahiz ganbera musikako kontzertuak ematen. Orain Zumaia-tik deitu dioten bezala, Europako hainbat herrialdeetatik ere deitu izan diote ikastaroak emateko, besteak beste, Alemania eta Suediatik.

Halaber, irakasleen artean bereziki nabarmendu beharra dago Isabel Rey soprano valentziarra. Espainia eta Europako hainbat antzokitan abestu duen emakume hau arituko da aurtun estreinatuko den kantu eskolak ematen. Baina lan horretan ez da bakarrik arituko, ondoan izango baititu Itziar Barredo, Amaia Zipitria eta Pedro José Rodríguez pianoarekin laguntzen.

### Kontzertuak

Irakasle horiek izango dira, halaber, musika jaialdiko kontzertuak eskainiko dituztenak. Horiakin batera, KUP taldea, Zumaia-ko banda eta San Pedro abesbatzaren kontzertuak ere entzun ahal izango dira. Eta badirudi lehen egunetik gogor hasteko

asmoa duela musika jaialdiak, Isabel Rey sopranoa eta Alejandro Zabala piano jolearekin emango baitzaio hasiera. Handik aurrera, musikaz beteriko hamar egun. Musikaz eta... film batez. Aurtun, "Fausto" film mutua emateko asmoa dute, baita filma ematen ari diren bitartean musika zuzenean jotzekoa ere. Azken hau izango da, hain zuzen ere, aurtengo berezitasunik handienetarikoa. Hau guztia ikusita, esan liteke abuztuan musikari handiak izango ditugula herrian. Horiakin ikasten aritu nahi duenak Ubillos Musika Etxera jo beharko du, jaialdiko idazkaritzara, izena emateko orriarekin eta ordainagiriarekin. Guztia uztailean hamarra baino lehen. Garbi dago musika klasikoak gustuko duenak ezingo duela emateko abuztuko lehen hamar egunetan oportetara joan!



Karmengo Ama, 14  
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: [bakun@euskalnet.net](mailto:bakun@euskalnet.net)

finés  
french  
euskara  
englantiar  
espagnol  
catalonian  
suomi basc  
català finnois  
francés anglais  
catalan française  
castellano finnish  
inglés baski catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



**B. Etxegarai 2, behea**  
943 86 27 14





antón, zapelatzaren dokumentala

# “komunikatzaile bakoitzak bere interesen arabera antolatzen du informazioa”

Etengabeko irribarre lotsatia dauka zintzilik Antón Cabaleiro galziarrak, matrailetan barrena barreiatuta dituen bizarrak igurtziaz azaldu dizki-gu bere lanaren gorabeherak.

**Zer pentsatu zenuen hainbeste lagunen artean aukeratu izan zinela jakin zenuenean?**

Albiste eman zidatenean oso pozik hartu nuen, proiektu hau ikaragarri ondo dago. Divergentes proiektuaren berri internet bidez jakin nuen, izena eman eta konturatzerako hemen nago. Sekula ez nintzen izan Euskal Herrian eta horrek ere aldeko puntu asko ematen dizkio egonaldiari. Donostian hilabete egon naiz bizitzen Divergenteseko jendearekin, harreman oso ona eduki dugu eta oso entretenigarria izan da.

**EITBrekin tokatu zaizu lan egitea eta Divergentesi buruzko dokumental bat egin behar izan duzu. Agian zure izango zen hasieratik definituena zegoen proiektua.**

Beno, baliteke itxura hori ematea, baina guk ere izan ditugu eztabaida luzeak egin beharrekoari buruz. Bai, dokumentala egitea izan da helburua hasieratik eta hori egin dut, baina egiteko moduak ere zeresan asko du. Nik gidoirik gabe eta martxaren arabera lan egiten du, gero aukeraketa egiten dut eta lana garatuz doa pixkanaka. Ez dago aurreikusitako ezer eta



“Gidoirik gabe eta martxaren arabera lan egiten du, gero aukeraketa egiten dut eta lana garatuz doa pixkanaka”

horrek arrisku asko dakartza. Ez dakit grabaturiko irudiek balioko didaten eta kasualitatez akatsen bat izan delako edo irudiak galtzen baditut ez daukat berreskuratzeko aukerarik.

**Zaila izan al da beste guztien lan prozesuak gainbegiratzuz zapelatz lanak egitea?**

Kamara beti da agresiboa eta klik entzuten dutenean jendea beldurtu egiten da hasieran. Ihes egin nahi balidate bezala ibili ziren elkar ezagutu aurretik; ez haserre, baina bai enbarru egingo banie bezala. Konfiantza hartu ondoren eta artistok taldea osatutakoan grabatzea errazagoa izan da. Amerikarrei, adibidez, beti gutxiago kostatzen zaie kamera aurrean jartzea; ikus-entzunezkoen ohitura handia dute.

**Zer iruditu zaizu EITB?**

Niri komunikazioaren prozesua asko interesatzen zait, informazioa nola jaso, prozesatu eta bidaltzen den. Komunikatzaile bakoitzak bere interesen arabera antolatzen du informazio eta neuk ere horixe bera egin dut dokumentalean. Jakin-mina daukat jendeak nola jasotzen duen ikusteko. Edozein delarik telebista, behin barrura sartutakoan erritmoa dene-tan berdina da: kardiakoa. Azkartasuna da nagusi, gustatzen zait, baina ez dakit bertan lan egiteko gai izango nintzatekeen.

bruce eta quercus distiratsua

# “Neure-neurea den zuhaitza da haritza”

Inaugurazio egunean harrapatu genuen Bruce iparramerikarra, artista taldeko partaiderik helduena. Zuloaga museoa-ren lorategietan ageri da bere lana, belar artean sendo erne den zilar koloreko haritza.

**Euskal Herrian haritzak esanahi berezia du. Zergatik aukeratu duzu zuhaitz mota hau?**

Minnesotan, nire jaioterrian, ez dauka esanahi berezirik haritzak. Baina bertako paisaian oso ohikoa da eta alde guztietan dago, oso normala da. Ni haritzen azpian hasi naiz eta oso gogoko ditut, tamaina egokikoak iruditzen zaizkit beraien inguruan jolasean ibiltzeko, bertara igo eta zintzilikatzeko... Neure-neurea den zuhaitza da haritza.

**Hilabete honetan (maiatzean) ez zenuen izango jolaserako asti handirik.**

Ez, oso lanpetuta ibili gara, bai ni eta bai beste guztiak ere. Baina oso gustura nago; izan ere, lan asko egin behar izan dugu oso denbora gutxian. Arazoak ere izan ditugu, baina azkenean guztiok egin ditugu proiektuak eta orain lan guztiak elkarrekin jartzeko orduan ikusten dira emaitzak. Oso momentu berezia da. **Tecnaliarekin egin duzu zure proiektua ezta?**

Bai, enpresa taldearen barruan dauden Robotiker eta Inasmet enpresekin, hain zuzen ere. Zoragarria izan da harremana. Lehen momentutik, oso-oso gertutik lagundu didate enpresako bi pertsonak; laser kodeak ikasi eta makinek nola lan egiten duen ikasteko oso beharrezkoa



“Aurrez New Yorken laserrarekin egin nuen lan, baina zaila izan da nire ordenagailua enpresako makinari lotzea”

izan da beraien laguntza. Aurrez New Yorken laserrarekin egin nuen lan, baina zaila izan da nire ordenagailua enpresako makinari lotzea. Asko lagundu didate eskultura zail hau egiten. Inasmetek garatu ditu pieza txiki-txikiak; gero piezak txikiak elkartuta, eskultura handia sortu da.

**Zeuk ekarri al duzu laserra kudeatzeko programa Minnesotatik?**

Bai, neure ordenagailuan ekarri dut eta hura hemengo makineriara moldatzen saiatu gara. Nik han ibiltzen ditudan makinek laserren antzera egiten dute lan, baina ez daukate hainbesteko zehaztasunik.

**Ikerketa, teknologia eta arte garaikidea lotzea interesgarria dela iruditzen al zaizu?**

Guztiz. Nire proiektua oso teknikoa izan da, baina erabat sinetsita nago nahasketa oso eraginkorra dela. Harreman hori gauzatzeko orduan beti hobetu daiteke. Hemen ere hobeto egin zitekeen, lehen aldia zen eta komunikazio arazoak izan dira. Ikasteko gauza asko daude. Baina harrিতa geratu naiz lehen aldia izanik nolako ondo garatu den ikusita. Lehen aldia izateko oso ondo joan da.

**Euskal Herria ezagutzen al zenuen?**

Ez nekien gauza asko Euskal Herriari buruz, non zegoen ere doi-doi nekien. Ez nuen bertako historia, jendea, musika eta jatekoa ezagutzen. Orain hasi naiz herri hau ezagutzen, badakit oraindik ulertu ezin ditudan gauza asko daudela, baina lehen baino askoz ere gauza gehiago dakizkit. Ziur nago bueltatuko naizela.

hasanen 31 itsasoak

## “ez naiz haserretu, botilek beren bidea egin zuten”

Bangladeshen jai, New Yorken bizi eta munduan zehar hainbat proiektutan murgilduta dabil azkenaldian Hasan beltzarana. Santiago baserriaren atzealdeko zelaian jardun genuen, besteak beste bere lanean eragina izan zuen antxoa eskasiak sorturiko krisiaz.

**Itsasora botatako botilak ezin izan zenituen antxoaz bete azkenean.**

Hasiera batean kristalezko ontziak antxoaz beteta bota behar nituen itsasora, baina nire lan prozesua eta antxoa eskasiak sorturiko krisia aldi berean izan dira eta azkenean inork ez zuen antxoekin lan egin nahi. Horrek nire ideia erabat puskatu zuen, proiektuak zituen bi zatiak oso lotuta baitzeuden. Itsasoa botatako ontziak eta parrokiak jarri behar nituen ontziak lotura estua zuten, eta antxoarik ez zuten proiektuari beste ikuspegi bat eman behar izan nion.

**Itsasoa egindako performanceak ez zuen oso itxuroso irten... Ez al zinen pixka bat haserretu botilak iritsi ez zirenean?**

Aztiko langileek Pasaiatik irten zuten ontzian eta Zumaia 2-3 kilometrorara bota zituzten. Goizeko 10:30ean bota zituzten eta eguna aurrera zihoan heinean botilen norabidea ez zela egoki ikusi genuen. Ni ez naiz haserretu. Botilek beren bidea egin zuten eta onartu egin behar da. Garrantzitsua da botila barruko ur geza itsasoko ur gaziak karreatu zuela.



“Botila barruko ur geza berdin-berdin mantenduko da udan zehar eta bitartean ur gaziak lurrunduz joango da pixkanaka”

**Santio etxean jarritako instalazioa ur geza eta ur gaziaren harreman horretatik etorri al da?**

Bi astetan aldatu behar izan dut guztia. Polemika gutxiagoko gauzak lantzen

hastea erabaki nuen; azkenean, itsasori eta urari buruzko lan kontzeptualagoa landu dut. Instalazioan 31 akuario daude eta Kantauri itsasoko ura hartu dugu guztiak betetzeko. Akuario bakoitzeko urari ur geza edo gatza gehituz 31 gazitasun ezberdineko urak sortu ditugu, munduko 31 itsaso ezberdinetako ureri dagozkien kantitateak errespetatuz. Hemengo itsasoko ura zerbait lokala eta berezia da, baina munduko beste itsasoko urarekin konektaturik dago, lotura globala da. Akuario barruan ur mineralez betetako botilak jarri ditut igerian. Botila barruko ur geza berdin-berdin mantenduko da udan zehar eta bitartean ur gaziak lurrunduz joango da pixkanaka, eraldatuz.

**Zer iruditu zaizu Euskal Herria?**

New York-eko bizimoduarekin alderatuta oso ezberdina iruditu zait. Denbora gutxi pasa dut, baina bakarria dela iruditzen zait eta bizi kalitatea oso ona da. Lagun batek Suitzaren antza duela esan dit, eta egia da, agian mendiak izango dira, baliteke txikitasuna izatea. Ingeniaritza eta teknologia aldetik ere maila oso ona dago eta teknologia parkeak punta-puntakoak dira. Teknologia eta artea uztartzen duen beste proiekturik ez dut ezagutzen munduan eta aukera hau paregabea da. Hemen egonda gero, goazen tokira goazela zaila egiten zait hobeto egongo garela pentsatzea.

## UDAKO ZINEA

# Bost pelikula, bost, abuztuko gauetan

Laugarren urtez jarraian, Ostarrena zine klub taldeak Udako zine ziklo laburra antolatu du. Abuztuaren 22an hasi eta 26ra bitartean, gauero zinema saioa izango da Aita Mari aretoan. Aurrekoetan bezala, herriko aretoan erakutsi ez diren pelikula komertzialak ekarriko dira. Saioak gaueko 10:30ean izango dira.

Udako zikloa abuztuaren 22an hasiko da, *El fantasma de la ópera* pelikula musikarekin. Gaston Leroux-en eleberrri baten oinarrituta, Andrew Lloyd Webber-ek antzerki musikal bat sortu zuen. Azken hau eraman du pantaila handira Joel Schumacher zuzendariak. Pariseko opera, lur azpian bizi den mamua, traizioak, amodio istorioak eta horien guztien gainetik musika aurkituko ditugu. Lloyd Webberen lanak agintzen duen bezala, pelikula guztia abestua da. Hori dela eta, filma jatorrizko bertsioan eskainiko da, azpittuluekin. Abuztuaren 23an *El hundimiento* filmaren txanda izango da. Pelikula alemaniar honek Hirugarren Reicharen hondamendia jasotzen du. Errusiako Armada Gorria Berlineko ateetan zela, Hitler, Eva Braun eta Goebbels eta bere sendia, besteak beste, bunker batean sartu ziren handik ez ateratzeko. Oscarretarako izendatua izan zen pelikula honetan aipagarriena Bruno Ganz aktorearen lana da: bere Hitler-ek beldurra ematen du.



Asteazkenean, hilaren 24an, *El mensajero del miedo* film estatubatuarra eskainiko da. Izen berean 1960ko hamarkadan estreinatuz pelikularen *remake*-a, Jonathan Demme (*El silen-*

*cio de los corderos*) da bertsio berri honen zuzendaria. Pertsiar Golkoko gerrako bi veterano dira protagonistak. Bata Estatu Batuetako presidentziarako hautagaia izango da; bigarrena, berriz, hautagai hori gelditzen saiatuko da. Abuztuaren 25ean, ostegunez, *Algo en común* komedia erromantiko independentea ikusi ahal izango da. Ama hiltzean, aktore izateko asmoarekin Kaliforniara joan zen gaztea New Jerseyra itzuliko da. Bertan, atsekabetutako aita, aspaldiko lagunak eta zenbait arazo dituen neska aurkituko ditu. Aktoreen artean Natalie Portman (*Star wars*) ezaguna dago. Pelikula txinatar batekin amaituko da aurtengo zikloa, *La casa de las dagas voladoras*-ekin hain zuzen ere. Orain biz-pahiru urte *Hero* filma aurkeztu zuen Zhang Yimou zuzendariak borroka arteak, salto sinestezinak, irudi erakargarriak eta Bilbo-Behobia autopistak baino bihurtune gehiago dituen istorioa batzen ditu lan benetan ikusgarri honetan.

GOIKO BODEGOIA  
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861391

OPTIKA ZUMAIÁ

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I Á

**OSA**  
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12      Tel. 943 861412

**Kresala**  
— edergintza —

Amaiako Plaza  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

**AR** Ricardo J. Azcue Yeregui  
Abokatua • Asegurak  
Finka Administrazioa

txomin agirre 4, beheko  
20.750 zumaya (gizuzkoa)  
E-mail: rajazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862051  
Fax. 943 862748

# agenda

## UZTAILA

8tik 10era  
**NARRONDO AUZOKO JAIK**  
 10, igandea: 18.30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia KIÑU taldearekin  
 19.00etan Erribera kalean, TRAPU ZAHARRA antzerki taldearen "El Písito"  
 11tik-17ra  
 Piragua topaketak (ikusit egitaraua)  
 15, ostirala: 20:00etan Zuloaga Museoko kaperan, DIVERGENTES programaketaren barne, Euskal Herriko Gazte Orkestraren kontzertua (EGO)  
 16, larunbata: 22.00etan Mari kaleko plazatxoan, San Pedro Abesbatza eta Beheko Plaza Abesbatza taldeen udako kontzertua.  
 17, igandea: 18.30ean Kofradian KIÑU taldearen dantzaldia  
 24, igandea: 13.00etan HAUR FOLKLORE JAIALDIAREN taldeen kalejira.

18.30ean HAUR FOLKLORE JAIALDIAREN ikuskizuna plazan  
 25, astelehena: 18.30ean Kofradian, dantzaldia BASAJAUN taldearekin  
 30, larunbata: 18.00etan hasita Erribera kalean, The McKensy's band-en kalejira.  
 31, igandea: 18.30ean plazan, dantzaldia BASAJAUN taldearekin

## ABUZTUA

1etik 11ra  
**ZUMAIKO NAZIOARTEKO MUSIKA JAIALDIA XXI.** edizioa  
 6, larunbata: 20.00etatik aurrera Uda iluntze Musikala. Musika gune ezberdinak herrian zehar.  
 7, igandea: 18.30ean plazan, KIÑU taldearekin dantzaldia  
 12, ostirala: EUSKAL JAI EGUNA: Azoka, musika kalean, Bazkari herrikoia, Dantza erakustaldia, Sagardo dastaketa eta erromeria.

14, igandea: 18.30ean Kofradian, BASAJAUN taldearekin dantzaldia  
 15, astelehena: 9.00ean hasita ZUMAIKO KALEKO PINTURA LEHIAKETA  
 17.00etan HAURRENTZAT TAILERRAK  
 23.00etan Mari kalean, KARIDADEKO BENTA taldearen kontzertua  
 20, larunbata KUADRILEN EGUNA  
 21, igandea 18.30ean plazan, KIÑU taldearekin dantzaldia  
 24tik 28ra: OIKIA AUZOKO JAIK  
 28, igandea: 18.30ean Kofradian, BASAJAUN taldearekin dantzaldia

## IRAILA

10, larunbata: 22.00etan Aita Mari aretoan, Moldaviako ballet klasikoaren ikuskizuna  
 17, larunbata: OLARRO EGUNAREN II. Edizioa  
 28tik aurrera: SAN MIGEL JAIK Artadi auzoan.



## Euskal Jaiak Zumaian

Txapela edo zapia buruan eta abarkak oinetan, eta murgil gaitezen, sagardoa, musika eta alaitasuna ekartzen digun Euskal Jai egunean! Bazkari herrikoia, dantza erakustaldia, sagardo dastaketa eta erromeria izango dira, besteak beste, abuztuaren 12an Zumaian.

amaiako plaza, 2  
 Tel. 943 143278

**Maite**  
 ileapaindegia

**Malaur**

tresna digital  
 internet  
 scanner

**ertz**  
 informatika

Eusebio Gurrutxaga, 6  
 Tel. 943 14 33 95

**DALAC**  
 COMPLEX

**L** **AUTO-ESKOLA**  
 PRACTICAS

**STOP**

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua  
 - Praktika eta azterketak Azpeitian  
 - GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAI A**

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia

**Maxi**  
**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
 TEL: 943 86 10 21

taberna  
**JUSTA**  
 eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

**LEIZE**  
 taberna

Juan Belmonte, 6

ileapaindegia

**I Z E T A**

Urumea, 6 Tel. 943 862083



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

## udako zinea 2005

abuztuak 22

El fantasma de la ópera

abuztuak 23

El hundimiento

abuztuak 24

El mensajero del miedo

abuztuak 25

Algo en común


abuztuak 26

La casa de las dagas voladoras

Gaueko 10:30ean

Aita Mari zinea

Zumaia



antolatzailea: ostarene zine klub taldea,  
laguntzaileak: zumaiko udala eta gipuzkoako bere aldundia